

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1920-1921

II garen urtea — II g. zenbakia

AITA INTZA TA G. LACOMBE'REN SARERITZALDIAK

TA

AITA OLABIDE TA AZKUE YAUNAREN ERANTZUMENAK



BILBO'N
EUSKALTZAINDIA'REN ETXEAN
RIBERA, 18

DONOSTIA'N
SAN IÑAZIO'REN GUTUNDEGIAN
GARIBAY, 28

TOLOSA (Prantzi'koan)
EDOUARD PRIVAT'EN GUTUNDEGI TA IRARKOLAN

RUE DES ARTS, 14

1921

ARGITARATZAILEA'REKIKOAK

Agerkari onen egintzari doazkionak
EUSKERA'ren argitaratzailea'ri zuzendu
bitez :

Para cuanto se relacione con la redac-
ción de la Revista, escribase al editor :

Pour tout ce qui regarde la rédaction
de ce Bulletin s'adresser à l'éditeur :

PIERRE LHANDÉ, S. J.

24, Rue Perchepinte, Toulouse (France).

EROSPIDE-ARPIDEAK

Suscripciones Abonnements

Librería de San Ignacio de Loyola,
28, Garibay, SAN SEBASTIAN (Guipúzcoa).

INTZA'Ė DAMASO AITA

BURUÑURDUNA

TA

GEORGES LACOMBE YAUNAREN

SARERITZALDIAK

TA

OLABIDE'TAĖ EĖAIMUN AITA


JOSULAGUNA

TA

RESURRECCIÓN MARIA DE AZKUE

EUSKALTZAINBURUAREN

ERANTZUPENAK



NAPARO'KO ADITZ-LAGUNTZALEA

ZUKETAZKO ESAKERAN

1921'EKO ILBELTZAREN 27'AN, ELIZONDO'KO AUZO-ETXEAN

EUSKALTZAINDIAN SARTZEKO EGUNEAN

INTZA'R DAMASO AN. BURUÑURDUNAK IRAKURITAKO LANA

1. Entzuntzaleai emandako orrialdea.

Aditza = verbo.

Aditz-laguntzalea = verbo auxiliar.

Aditz-Aldakaitza = verbo intransitivo.

Aditz-Aldakoia = verbo transitivo.

Aditz Garaiak = tiempos verbales.

Oraingoa = presente de indicativo.

Lenagokoa = pretérito.

Len-lentxagokoa = pretérito próximo.

Len-lenagokoa = Pretérito pasado.

Lenen-aurekoa = Pretérito plusquamperfecto.

Lenen-aure-aurekoa = Pretérito plusqu. próximo.

Lenen-aureagokoa = Pretérito plusqu. pasado.

Gerokoa = futuro.

Geroko-berazkoa = futuro categórico.

Goroko-zalantzazkoa = futuro conjetural { Bertakoa = próximo
Ondorekoa = remoto.

Gurazkoa = subjuntivo.

Gurazko-bertakoa = Presente de subjuntivo.

Gurazko-ondorekoa = Pretérito de Subjuntivo.

Agintzazkoa = Imperativo.

Baldintzazkoa = condicional { Ondorexagokoa = futuro próximo.
Ondoreagokoa = futuro remoto.

Baldin-zalantzazkoa = Condicional { Oraingoa = presente.
supositivo..... { Lenagokoa = pretérito.
Ondorekoa = futuro.

Almenazkoa = potencial.

Almenazko bertakoa edo ondorekoa = Presente o futuro potencial.

Almenazko len-lentxagokoa = Pasado próximo del potencial.

Almenazko len-lenagokoa = pasado remoto del potencial.

Almen-zalantzazkoa = Suposi- { Oraingoa = presente.
tivo del potencial..... { Geroko-zalantzazkoa = Fut. Conj.

JAUNAK :

Sei ilabete joan dira, gauñ nere gain aítzera noan eskeñi zitzaidan ezkeroz; ta ala ere nere goñputzetik oraindik ez da atera, beñi onekin nere biotzean saítu zan bilduñ.

Noñ naiz, alde batera, onelako omena edo onra neri egíteko, ta beste aldera txafagoa dana, non daukat one-lako eginbidea betetzeko beañ dan argiñasuna ta jakin-duria? Nere baiñen auxe esanez, joan nintzan nere Aiña Nagusiagana, eskeintzen zitzaidanaren beñia ta nere eze-koa ematera. Baño onek esan zidan artzeko eskeintzen zitzaidana ta nere eginkizuna betetzen saialzeko; esanez : dezakezuna egizu ta ez zaizu geiago eskatuko.

Ixiñ-ixiñlik atera nintzan andik, itz oiekin pixkoat poz-turik ba-da ere, aski lañi. Euskaltzin-Buru jaunak biali-tako eskutitz edo kartaren estalkia nere eskuetan nerabi-len jiraka, eta bere artan irakuñi nuan « Ekin eta yañai ». Baño nondik ekin? esan nion nere buruari. Ez nuan argirik ikusten.

Begiraldi bat eman nion, nere baiñen, gure Napaño mañeari, bere ordekoa izan beañ nuala burutik ezin kenduz. Eta oraindik iñork eskurik sartu gabe dagoan basa edo oyan itxi-itxia bezala irudiñ zitzaidan.

Ainbeste lan egin beañko da eñi ontan euskera batu, ondu, beñitu ta goratzekotan! Baño ekin dezaiodan bi-ñipin lanari. Gure euskera ondu, azkartu, gora-erazi ta iraunkor egitekotan beañezkoa ba-da au batutzea, batu baño lenagoko lana da euskera itzegiñen dan alderdi bakoitzeko euskalkiaren beñia izatea, lendik dakiten ofen bidez erakutsi nai zaiena ikasi dezaten. Auxe izan zan, ba, egin dudan lana egilerá eragin zidan gogorapena.

Gure izkuntz edera.

Gure izkuntza zeñen edera, aberatsa ta maitagarria dan ez dakien asko, aritzen ziran lengo sei ilabetetan ainbeste jira-bira euskeragatik egiñen ni ikusi-ta. Araba ondoko Ziordi'tik asi-ta Eñonkari'rañoko euskera derabilten baztaf geientsuetan ibili naiz, ango euskeran zerbait aldaketa izan zitekela sumatu ezkeroz. Ez naute izutu bide luze edo zakañak. Zertako artzen niñuan alako nekeak esaten zidaten askok. Baño pitxirik ederenak itxasoaren eraietan izkutatzen diran bezala, esanerarik politenak gure eritafen ezpañetan arkitzen dirala dakigunak, ezeretzat ematen ditugu gure neke guziak, zerpait befi arkitzen degunean.

Txorotako artu naute gure eritaf batzuek. Baño gure eritaf auek ez dakite « euskal izkuntza afigarria ba-da... Aditza edo berboa dala bere galdoña ta bere goragarria, aditzean agertzen bai ditu (euskerak) bere aunditasuna ta bere baztaf gabeko aberastasunak. » Onela zion Intxauspe Apaiz jaunak, eta dafakio : (euskerazko aditza) « bat bakaña da ta au da bere berezko edergafi aundienetakoa; bere bakañtasunean ordea, ain aundia, ain emakoia, ain aberatsa, ain abaña da ! beste izkuntza guzien gañetik dago, gure basoetako aritzak beren adaf aundien azpian sortzen diran landaretxoen gañetik dauden bezala¹. »

Gure eritaf oiek ez dakile Intxauspe berak esana :

1. « Si la langue basque est admirable dans sa déclinaison, dans la manière dont elle traite le nom, elle l'est bien davantage dans son verbe et dans sa conjugaison. Le verbe est sa gloire et son orgueil; c'est dans le verbe qu'elle déploie sa magnificence et ses immenses richesses, il est unique, et c'est l'une des plus belles prérogatives; mais dans son unité, il est si grand, si fécond, si riche, si magnifique, qu'il surpasse autant les verbes des autres langues que le chêne de nos forêts surpasse les humbles bruyères qui croissent sous ses vastes rameaux. »

« Izateak dituan izkutuko guziak ostutzen, edesti edo istoriak dituan ilunbeta guziak argitzen, aspalditako oroigari guziak izkututik ateratzen eta zeru-lufak gizonaren argitasunari eskeintzen dioten asmagari guzia agertzen gizonak bere egiñal guziak jartzen dituan mende onetan, jakintsuen begiak ezari dirala euskaldunen izkuntzagan, izkuntz ain afigafi, ain berezko, ain gozo ta ain ederki gorдетako onetan¹. »

Gure efitar askok, diot beñiz ere, ez dakiñe gure izkuntza dala « oroigari polit eta agurgafia, lenengo gizonen seaskaraño bere jatofiz igotzen dana, eta eri ta izkuntzak nasi dituen urteak, ez bere izaneran, ezta bere itxuraz ere aldatu ez dutena. Lengo eri aundi baten oroigari izanik, bere inguruan eri aundi ta efidiak puñukatzen ikusi dituen eta ekaitzaldi gogofenari beti aurpegia eman dioten Sorkaldeko Piramide zentoi antzeko aiek bezalaxe dela » gure izkuntza.

Gure efitarak ez lirake añituko gure lanaz ba-lekiñe 1889-gafen urtean Aranatar Jose Ignazio'k "Euskalerian ezari zuan zortziko au :

1. Ikusi « Le Verbe Basque » Inchauspe Apaizaren Itzaurrea :

« Dans ce siècle de prodigieuse activité où l'homme s'efforce de ravir à la nature tous ses secrets, d'éclaircir toutes les obscurités de l'histoire, d'exhumer tous les monuments de l'antiquité, de pénétrer tous les mystères que l'univers offre à son esprit, l'attention des savants s'est aussi arrêtée sur la langue des Basques, cette langue si étrange, si originale, si harmonieuse et si merveilleusement conservée : monument curieux et vénérable dont l'origine semble devoir remonter jusqu'au berceau du genre humain, et qui a traversé les âges sans que les bouleversements qui ont tout confondu autour de lui, et les peuples et les langues, aient pu dénaturer sa structure primitive, ni altérer profondément les formes qui le distinguent : semblable à ces gigantesques Pyramides de l'Orient, témoins de la puissance passée d'un grand peuple, qui ont vu s'écrouler autour d'elles les trônes, les cités et les empires, et qui seules sont restées debout, bravant la puissance destructive des éléments et des hommes... »

¡ Euskera ! ¡ Euskera ! ¡ izkunde danen
Gañez dakust goi-goikoa :
Zugandu dezu zure edergaiz
Nere izate osoa :
Zure *adititzez* zuk didazu « Bai »
« Ni naiz aiskide gozoa,
Jainkoa eskuta—dan *Adititza*,
Ta *adititza* da Jainkoa »

Onengatik ibili naiz aditz laguntzalea bere aldaketa guziekin Napafoan biltzen.

*
* *

Dakarten lana.

Onenbeste ta onenbeste ibilera egin ondoan esan dezaket, ba, bildu ditutela Napafoan sumatu dituen euskararen aldaketa guziak *zuketako* esaneran. Ixkuta liteke, egia da, txokoen batean oraindik besteen bat, baño ezta gauz aundirik izango. Bai geldituko zitzaizkitela alde askotan nik sumatu gabeko garai bat baño geiago.

Ez uste izan, geroztik, bildu al guzia bildurik dagoanik, nik egin duen lan ontan; ez orixe. Zuketazko esanera baño aberatsagoa da alde askotan *iketazkoa* ta obeki ere dakite ta argatik alde batera eraxagoa litzeke askoz geiago biltzea, erakusle geiago arkituko litzekelako. Gauñ-gauñkoaz beaferzkogoa zeritzaiten zuketazkoa biltzea ta auxa da egin duen lanik aundiena.

Euskaleñiaren zati eder ontako zelai, mendi ta errekak, eñi eta ibařak ibilirik dauzkat oraingoan. Ikusi ditut bere alderdi aberatsak, baita bizia ezin ateraz bizi diran aienak ere.

Gure eñi maite ontako baztař guziak ez dira, ba, berdiñak, baño bai beroietan bizi diren biztanle euskaldunak. Eñi aundietan bezala eñi txikietan, eñian bezala baseñan,

alde guzietan arkitu dut biotzik onena ta gogorik aundiena alegin guzia egiteko beren atarietan deitzen dun guziaren onez. Nik beintzat, guzientzat eskef onez beterik, aifortu beaf (nere biotzak ala eskatzen dit-eta), orenbeste eritan ez dutela eskef txaf bat artu, biotz zimufik ikusi, ezta aurpegi ilunik ere.

Alde guzietan egin zait aferarik onena, guzik eskefi zaizkit biotzik onenaz nere lan gogof ortan laguntzera ta bein bafo geiagotan beren artotako edo babanabafetako beaf zuen beta neregatik galduz.

Bijoa batez ere nere eskef on ofen befia ibili naizen alderdi guzietako Apez jaun guzienganafo, ifnof berexi gabe; guziak nork nork bafo obeki lagunduko ziran eta atsegin emango ziran ibili dira guzi-guziak-eta. Nere laguntzale guzi oiekin neuken zoafak ematen ziran astuntasuna nere biotz gañetik kendu ondoan, egin duen lan guziaren befia ematera noa.

Nere lanak bi zati ditu :

- 1^a. Lenengoan itz batzuek ba-da ere esan nai ditut lengo mendetan Napafoan izan dugun euskeraz, ordutik gelditzen zaizkigun idazki edo ezañitako gauzetatik atera-ta.
- 2^a. Bigafoangoan, bildu dituen euskalki edo euskalkitxo guzien befi txiki-txiki bat emango dut, luze emateko asko dira-ta. Eta azkenean esaten dituen aldaketa guziak egiztutzeko ortxe geldituko dira nik bildutako guziak eñiz eñi jafiak, eta “ Euskera ” n pixkeka agertuz joango dira.

I

Aditz-laguntzalea idazki (escritos) zañetan.

Napafoan aspaldiko mendetan egin izan diran idazkien bila ibili naiz eta bi motetakoak arkitu ditut, bietatik

ere gutxi aski baño. Ařgitaratuak eta ařgitara gabeak. Mendez-mende ařgitaratu edo egin izan izan diran ariora jařiko ditut eskutaratu dituenak.

« ALDARÉCO GORPÚTÇ SANDUÁRI »

Izen auxa deramate Napařo'ko euskeraz ezagutzen ditudan leforik zafenak.

1609-gařen urtean Iruņa'n argitaratu zan euskarazko neurtitz batzuek dakartzan idazti bat. Iruņa'ko Gotzai Antonio *Venegas de Figueroa* jauna zenean Kristo'ren Gorputz Jaietan egingakoen beřia dakař¹.

Jai aietarako ageřtu ziran lanen ařtean iru oleřki euskerazkoak sarituak izan ziran. Lendabizikoa Ezkufa'tař Pedro jaunarena.

Goi-napar-egoaldeko euskera utsaz ez ba-da ere, alderdi ortako euskeraren antz aundiena duanaz egiņa dago. Neurtitz auek iruak izen bera dute : *Aldareko Gorputz Sanduari*.

Bere ortan derabiltzan aditz-laguntzalearen garaiaak ara emen :

Duřula	yřan banu, -niřu-řaigu, -řaiguna, -řu = jane-
du	ditu gařu. -řaitřan. -aũu = begirauřu. -řiran.
dugu	-drauc. -ce. -deřařun. -da. -digu. -dayte-
	řaudela. — řaiřun.

Bigařen saria irabazi zuten neurtitzak Aldaz'tař Migel'enak dira. Onen euskerak Be-Napařa'ko usai aundia du. Ara bere Aditz-laguntzalearen dakartzan garaiaak : Du, duenik, badu, dugu, diřula, dion, digu, den, baře, řuen, dela, řu « janegazu » ; ařu, « ıu » sařu ; ıozu « egıozu » ;

1. Idazti ori ikusteکو biderik ez degu izan, bařo neurtitz oiek « Revista Euskara » Iruņa'n agertuak daude. 1879, II urt. 199-ıo4 orıaldetan.

diçula = dezaizula; tçaite, diro « jandiro » = dezake; diroque « alaber eman diroque » = dezake; daten = daiteken; datela = daitekela. *Diro* ta *daten* itzengatik iruditzen zait Be-Napañaldekoa izango zala onen egilea, ango Leizañagaren idaztietan arkitzen diñugulako itz oiek, baño Goi-Napañ'kotan ez.

Irugañen saria irabazi zuten neuñtitzak Elizalde'tar Joan'enak izan ziran. Bere euskera ez da eñaz asmatzea nongoa dan. Baño esanera guziak gauñko Goi-napañ-ipañ-aldeko kerua deramate. Ala ere garai batean çigu esaten du, ta esanera ori Goi-Napañ-egoaldekoa da. Ara bere aditz garaiak :

Gaitu, gayteçen, baduçue, çayo, deçaque, deçagun, gaytengatic, deçan, daiteque, etçindezengatic, ezquindeçengatic, tçean (errepartitçean); dio, badeçaçu, duzune-tan, drakogun, çigu.

Azkeneko itz auxe ñakaña arkitzen dut Napañ-egoaldekoa; ofen aũeko *dracogun* eta ofen antzekoak, garai artan alde askotan (guzietan ezpa-da ere) zebiltzatenak dira naski. Gero itzegingo degu ortaz.

*
* *

Beriain'en Dotrina.

Garai berean edo aurki lentxago egiña izango da, Uterga' (Baldizarbe'ko) Apaiz-Aitak egiñdako kristau-ikasti edo dotrina. *Licenciado Juan de Beriayn, Abad Parroquial de Uterga'*koak egiña dala dio idaztitxoak. Iruñako Gotzai Mendoza'tar Frantzisko jaunak ontzat emana, eta 1626'ko Ofilan, Iruña'n, Alkoz'en etxean irafia.

Irigarai'tar Fermin, Iruña'ko Gaxotegiko Sendatzale-buruarena da idazlitxo aipagañi ori; ta bere ontasunari eskeñak guzia irakuñi ta Aditz-laguntzalea ateratzeko

bidea izan dut. Oñaldean batzuek galdu zaizkio, baño gutxi.

Garai bakoitzeko esanera guziak batera bildurik jafi ditut, eñaxago oñtzeko oraingo euskerarekin duen alkatasun edo berextasuna.

Garai bakañen bat oso-osorik arkitzen da, beste batzueetatik lagun geienan esanerak eta beste batzuetan lagun bakañarena.

Ona guzia; esanera bakoitzaren atzetik oñaldearen zenbakia dioa. Zenbakiaren atzetik batzuetan B. izkia jafiko dut zenbaki bakoitzarekin bi oñalde dakartzelako idazti oñek; ta B. izkiak esan nai du bigañen oñaldeko itza dala oñ jafia.

naiz (85);

çara (85); çaraden (98);

da (84 B); yçanen da (101); den (89); dela (84);

garade (97); garadela (101);

çaraten (95);

dira (98); dirade (87); yçanen dirade (93 B);

çayona (101); çayzquion (101);

baçaygu (109 B); çaiçquigu (115);

çaiçue,

çayote (124 B); çaiçquiot (115);

çaytut (98 B);

çaytu (98 B); bayçaitu (98);

çaytugu (98 B);

çen (100 B); bayce (96); çenean (95 B);

guinan,

çinaten,

zirade (111);

çaiçala (85);

yçanica « Nola Iaungoicoaren Semea, yçanica Iaun-
goycoa, egince guiçon » (107);

banytç, baniz,
baçina,
balitç, ezpaliz (101);

dut (85);
duçu (96 B);
du (95 B); duen (101 B);
dugu (103); dugula (97);

ditu (97 B); dituen (100);
ditugunac (96); ditugula (104);
dituztenac (93 B); ezpaytuzte (87);
ezpaytituzte (109);

diot,
diozu,
dio (97); baytio (100 B);
diote (116);

digun (97 B); *draugu* = digu (84 B);
dizquigu (105); tigute, baytigute (113 B);

dizquiozu,
dizquiola (115 B);
dizquiotegun (84);

çinduen (100 B);
çuen (84 B); yzandubayçuen (98);
ginduen (108);
çuten (85 B);

çituen (107);
ginduce (116 B); bayquinduce (116 B);
çitusten (123);

çiotela (123);

çisquioten (123);

deçan,

deçagun (126); deçagula (87);

deçaten,

ditçaçun,

diçan (123 B);

diçagun (108 B); diçagula (87 B);

deçaque (103); çaque, bayteçaque (107);

deçaquegu (100);

deçaqueten (119 B);

gaiçan,

gaiçaçuen,

gaiçaten,

draçadaçu (101);

draçaguçu (84); drazquiguçu (84);

çeçatela (123);

gaytecen (108);

çaçu (96);

içaçu, « erraniçaçu » (103);

diteque 111 B);

ditezque (110);

nuque (108);

lute « ezpalute » (108 B);

luquetelarie (123 B);

lituzquete « ezlituzquete (108 B);

dedin (116); dedinean, « guc daquigunada etorrigo dela mundua acaba dedinean » (112 B);

daguyen = diguten, « procuraçen duela aldaguyen calte guçia egitera »,

baytate = diteke, « cen baytan ezin baytate gauza gais-
toric (125 B);

badadi (125).

Berriain'daŕ Juan'ek *dotriña* ortan derabiltzen aditz-
garai geientsuok aldaketa oso txikiakin gaurko euske-
raren antz-antzekoak dira, ta goi-napaŕ ipaŕ aldekoaren
esanerak dira.

Ba-ditu, bai, beste garai batzuetan gaur goi-napaŕoan
ibiltzen ez diran esanera batzuek. Ara :

Drazadazu = dezadazu; *drazaguzu* = dezaguzu; *draz-
quiguzu* = dezazkiguzu; *drazudana* = dizudana; *draugu*
= digu; *draçaquet* = dezaket; *draçaquegu* = dezakegu;
draçaquegute = dezakegute; *dedinean*; *daguyen* = diguten;
baytate = bai diteke.

Garai auek gogora ekaŕi didate Auna-mendiz beste al-
detik, gure onek baño mende erdi bat lenago *Jesus-Christ*
gure Iaunaren Testamentu Berria idatzi zuana, Ioanes Lei-
zarraga Beraskoizkoa. Onek ibiltzen diŕu bere idatzi ofetan
garai auen antz-anzekoak : *Draukat*, *Drauzkigute*, *Drauz-
kizuet*, *Drauzuet* eta.

Laburdi'n ibiltzen dira orain ofelako esanerak, baño
an ere pixkoat aldaturik; au da, lendabiziko bi izki *dr'en*
artean sartzen duŕe *e bat* : Derautzut, deraukezut, derauz-
kiketzu eta¹. Gure onek ba-du ordea bere berexasuna
angoetatik, garaiaren erdian edo sustraian sartzen dun
za ortan. Baño aldaketa ori ere izan beaŕ du Zuberoaren
esanan, aipatzen du beintzat Ithurri jaunak.

Goi-Napaŕoan ezpadegu ere esanera oietatik gaurko
egunean ofduko era bere-berean, ba-diŕugu Baztan'en
iya garai artan (1712'en) Be-Napaŕoan ere esaten zirenak.
Bi gisez jartzen ziŕuan beintzat Pierre D'Urtek bere or-
duko Grammaire Basque'n :

1. Grammaire Basque par l'abbé Ithurri. 126 gaŕen ofial.

« Darozut = dauzut; daroat = daut; darotzuet = dautzuet; darotazu = dautazu; darokuzu = daukuzu; darotzugu = dauzugu; darogu = daugu; darolazue = dautazue; darokuzue = daukuzue. »

Garai auetako bigaíen esanera ori ba-degu oraindik Auna-Mendiz onoztik ere, Baztan'en. Beste *dra*ko esanera ofen aztarna bat ikusi diteke Efonkari'ko *dra* = *di-ra*'ren ordezkotan.

Beste, alderdi auetako gauíko euskeran arkitzen ez ditugun esanera aiek ere Auna-Mendiz aruntzko idazletan ikusten diranak dira.

*
* *

Mende ortan beste euskarazko zatitxo bat besterik ez tut arkiñu. Au Jesus'en Lagundiko seme argi bati zoí diogu. Aleson'daí Frantzisko Aitak, Filipe Aundia edo IV iltzean (1665), aren ilobirako egin zuan neurtitza da. Labuía baño begiragaía batez ere Aíía ori nongo seme dan begiratzan ba-da. Biana'n jaio zan, Aleson Aíía, 1635'an eta Iruña'ko Jesus'en Lagundiko AA. en Ikaste-txean lateratik asi-ta *teologia*'raño erakutsi ziñuan. Au idatzi edo eskribitu zuan garaiean filosofia erakusten ari zan.

Napaío'ko edesti edo istori-egile Moret Aííaren lanari onek jaíaiñu zion; izti edo gramatika gerkera-españe-razkoa ere egin zuan jaun onek.

Bere neurtitza labuía dalako osorik jaíiko dut.

GURE ERREGE FILIPE ANDIAREN ERIOTZEAN
EUSKARAZKO KOPLAK

Emen lur guti onetan
Dago Erregea sarturik,
Baña ez mundu gustian

Aren fama estalirik
Dagien negar Gizonak
Filiperen eriotzean,
Aren obrak dirade onak
Itsasoan ta lurrean.
Urtu beitez bioytzak (*sic*)
Negarrez faltagatik,
Eta gure begiak
Beude iturriak eginik.
Auts Errege biurtu zara
Yustentaria zeruen,
Nora (ai nizaz) joanen gara?
Zeruak daude erortren. (*sic*)
Oh Nafarroa leala!
Orai bear du akabatu;
Onekin bizi izan dá,
Onekin ere hil bear du.
Illumbetan dago emen,
Orai mundu gustía,
Zergatik illundu den
Aren iguzki andia.
Oh Kometa Gizonen
Lotzazale bortiza
Joan al ziñan Turkoaren
Buro cruela gentzera.
Filiperi zertako
Biyotz amoltsu zuenak,
Berzek baño geyago
Bizi merezi zuenak.
Dolore andi eta damú
Daukana biotzean
Nafarroak ezarri du
Erregearen obian.

Olerkitxo au Iruña'n argitaratu izan zan : « Revista Euskara »'tik artu degu, ezer aldatu gabe; baño damu degu lenengo idazkera berean ez egotea.

Emen agiri diran Aditz-laguntzalearen garaia oso eza-gunak zaizkigu gaurko egunetan. *Dirade, beitez, gara, du izan da, den, alziñan, zuenak.*

*
* * *

Axular'ta' Pedro.

Mila seireun eta berogeia ta bigarēnean argitara ematen zan euskalefian irten edo atera dan idazti edo libururik ederenetakoa. Sara'ko Apaiz-Aita izandako Axular'ta' Pedro jaunaren *Gero* izena zuan liburua. Baño ez noa ontaz itz egitera, bere aditz-laguntzalearen esanera guziak azaltzeko, idazti bat berexia bea' litzekelako. Urdazubita' bikain ofen aditz guztiaren be'ia norpaitek ematen ba digu, ongi artua izango.

Asko garai derabiltza onek, gau' Napar'alde onetan ibiltzen ez diran bezalakoak. Au egiztutzeko askiko dut adibidez garai batzuek ja'itzea. Inchauspe jaunak, Bayona'n 1864'an argitaratu zuanetik artzen di'ut.

baitçaica, 14;

lequidacayo = lezaikioke, 16;

daidiquegunic = dezakegunik, 24;

dezaqueyenean = dezakenean, 190;

daquidicayo = daikioke, 191;

ceicana = ziona, 191;

lequidiquedala = litzakidakela, 202;

etçaiçanic = etzaionik, 208;

ciaçoten = zezaioten,

liçatequeyela = litekela, 203;

çaquitça = zatzaio, 210.

Onelako beste asko ta asko garai jakingafiak dakaftza ta norbaitek len baño len guzien befia emango al digu.

*
* *

Mendiburu'tar Sebastian Aita J.L.'koa.

Goi-Napař-ipařaldekoan izan degun euskal idazlerik bikařena Jesus'en Lagundiari zof diogu.

Oyartzun'en jaio zan 1708'ko Agořaren 2'an. Bere euskal idazki guziak Iruņa'n idatzi edo ezaři zituan noski.

Emengo Jesus'en Lagundiko etxean latera erakutsi zuan iru urtez, sei urtez erakutsi zuan beřiz filosofia eta Miranda'tar Gaspař Iruņa'ko Gotzai zanaren eskeaz gero erakutsi zuan Teologia Jesus'en Lagundiko Aita guztiak gure iriburutik eta Espaņa guzitik bota zituzten zoritzařeko urterařo. Napařo'ko ta Gipuzkoa'ko baztař askotan Jaunaren itza adirazten 31 urtez ibili zan.

Bere gelditu zaizkigun idazkiak dira : « Jesus'en amore nequei dagozten cembait otoitz-gai » (3 idatzi, 1760); « Euscaldun onaren biciera », « Mezaren entzunbide labuř eřeza », « Errosarioco amarrecoen asiera », eta zembait bederatz-urrun edo nobena (1792) eta « Jesus'en Compañiaco A. Sebastian Mendiburuc euscaraz eracusten duen Jesus'en Biotzaren devocioa » (1747).

Gaizkile bat balitz bezala soldadu edo gudari artean Iruņa'tik atera-erazi zutenean, beste iru idazki (Kristau-ikastiaren azalpena) argitaratzeko zebilen, orduko oso bukatuřik; eta idazki oiek ez dira geiago agertu.

Aita Agurgaři au Bononia'n il zan 1782'eko uztailaren 14'ean. Guziok ezagutzen dituzue nik bezin ongi bere argitaratu diran idazkiak. Beroietan geientsuan Napař ipařaldeko euskera derabil baño garai ber-bera ta lagun beraren esanerak asko aldetara esaten ditu. Ta ortan eza-

gun da, bere egunetan ba-zirala gaurko aldaketa dietatik franko.

Baditu garaien batzuek *gaurko* Napañaldean arkitzen ez diñuenak : diotzat¹ dizkiot'en orde; diotzate=dizkiote esateko²; diotzake³ dizkio esan beaŕean. Onela oraingo *dizki* ori irugaŕengo batentzat esateko danean, askotan *diotza* egiñen du.

Lapurdi'ko esakera oiek ez ote dira gero Oyartzun bereko garai artako esakerak. Ala gogoratzen zait, eta esango dut zergatik. Azken orduan nere eskuetara etofi zaizkit Ondaŕabi'ko gure Aita Karlos zenaren eskuz egin-dako itzaldi batzuek. Bertan dionaz Oyartzun'en 1775'an esanak dira. Eta idazti onetan garai berrietakoen bat edo beste ikusi dut dakaŕela.

Mendiburu Aitak zizkion eta bere kidekoak esateko derabiltza ziotzan⁴ ta bere antzekoak.

Azkenean ditzazkete esateko ditzaquec⁵ derabil, eta litzaqueen⁶ litzazketen esan beaŕean.

*
* *

Misiotako Itzaldiak.

Lekarotz'ko gure Ikastetxeko idaztegiari arkitzen da idazti au : Sermones de Misi3n en Basquenze al simple uso de Fr. Carlos de Fuenterravia, Religioso Capuchino. En el Convto. de Pamplona. A3o 1775. Idazti au argitaratu gabea da.

1. Ikusi, « Jesusen Bihotzaren devoc3a », A. Sebastian Mendiburu, 199 or3aldean.

2. Beragan, 44 — gr. or3ald.

3. Ber., 390 or3ald.

4. 129 — gr. or3.

5. 38-77, or3.

6. 97 — gr. or3.

Au ere Iruñatik datořena da ba, ta napař euskera da berea.

Ara bere garai batzuek :

Dut (1);	naiz (2);
duzu (1);	zara (1);
du (1); estuen (1);	da (1);
dugula (1); estugu (1);	dire (1-2); dirade (2);
duzute (1);	
duten (2); ditusten (1);	diot (2);
detzaten (1); = ditzaten'en ordezt.	dio (1);
zirela (2);	digu (1);
didate (2);	diote (1).
etzinadela (1);	
bacizun (1);	

Napařoko euskeran gaur ipařaldean ibiltzen diran esanera dira ba, Aita Mendiburu'z itzegitean esandakoak ez besteak.

Idazti ortan berean lenengo ofialdeari itsatsirik arkitzen dira beste 8 ofialde oso atsegingařiak. Irařirik daude. Ez deramate izenik; ezta ere non edo noiz argitaratuak diran. Bi neurtitz, bat luzea (Misioetako Kantu edo abestiak), eta bestea Ama-Birjiñaren Sortze Garbiaren abestiak dira. Azkeneko aukerak dira gaur ere gure koruetan larunbatero erderaz abesten diřugunak. Argatik uste dut, ez dutela uts egingo lenengoak ere gure orduko Misiolarien abestiak dirala esanez.

Neurtitz auetako euskera ere napař euskera da, ta ala ba-ditu aditzaren aldaketa oargai batzuek.

Ona, bertako aditz garai guziak :

zera ta zarade (3); zara (4);
da (6); dire (6); dide (5);
duzun (1); tuzu (2); dituzu (3);
du (2); duan, eta duen (2);

duten (1); eztuenac (3);
dugula (2); duguna (3);
dizu (6); dizun (1);
digu (2);
diozu (3);
zaitu (1);
zaitugun (8);
gaitu (1);
ezaizan (2);
etzalacengatic (1);
ezaizaten (5);
zaite (2);
zaizte (6);
azu « ikusazu » (1);
izazu (1);
bezo, " barca bezo;
azquizu, " iducazquizu (4);
dadien (6);
gaizen (6);
zazun (1);
dezagun (2);
dezaten (6);
daitzen = daitezen (3);
zuena (7).

Sail onetan jafi dituen zenbakiak esan nai dute itza arkitzen dan neurtitzlefenkada.

Neurtitz oietan ateratzen diren itzik afigafienak ara, zer esanerarekin datozen : « aparta bear *zada* » (4) ean. « *ezailacen* erori », 5. « egonen *dide* aseac », 5. « munduko gusto guziak uzizazu oraidanic », 6. « geldi daicen becatuac beingoas barcaturic ».

Napaf-goi ipafaldean arkitzen dira esanera auek guziak edo geienak oraindak ere.

*
* *

Lizafaga'tar Joakin Elkano'ko Apaiz-Aita zana.

Lizafaga'tar Joakin Egues ibafeko Elkano izena duan eñian jaio zan 1748'ko urtearen Agoñako 17'an. Lizafaga'tar Tomas eta Iragi'tar Maria Frantziska izan ziran bere gurasoak. Bere jaitetxeak *Miguelena* du izena.

Bere etxetik ez zan atera, Iruña'n bere ikastaldia egiñeko besterik. Apezgorako ikastaroa bukatu ta bereala bere eñira itzuli zan eta bi urtez izan zan Bitarteko edo Interino eta gero gelditu zan era bateko Apaiz-Aita egiñik, 1772'an. Gero urte batez Loyola'n egon zan Jesus'en Lagundiko izateko asmotan, baño bere osasunagatik edo itzuli zan beñiz bere Apaizgora.

1835'ko urtean il zan, larogei ta seigañen urtean Ilbeltzako 20'gafenean. Bere jaitetxeko ilobian ortzitu zuen.

Idazti asko egin zituan euskeraz jaun onek. Baño iru besterik ez dira argitaratu.

Urteko Igande guztietarako Platikak edo Itzaldia Donostian, Ignacio Ramon Baroja'ren moldiztegiari, 1846'an. Idazti onetan Napaf-egoalde euskera du, ezagun dunaz berea. Baño asko nasten du, Napaf ipafaldekoa. Batzuetan esaten du *izanen* eta beste batzuetan *izango*. Esan dñeke ipaf aldeko aditz laguntzalea derabilela era bat, naiz bein edo bein (oso gutxitan) bere eñi aldekoa nasten ba-du ere. *Dizueten* ordez *dizieten*¹, *duzen* ordez *ducie*²; *zazute*'ren lekuan *zaze*³ ta olakoen batzuek⁴.

1. Ikusi Lizafaga'tar Joakin J'ren « Urteko igande guztietarako Platicac edo itzaldia, Donostian Ignacio Ramon Baroja'ren Moldiztegiari, 1846 », 9-gr. orñald.

2. Beragan, 9-gr. orñ.

3. 9-gr. orñ.

4. Ber., 439, orñ.

Jaun onek bere beste idazti guztietan Goi-Napaf egoal-deko euskera uts-utsa derabil eta Donostia'n argitaratzean nonbait aldaketaen bat egin zuen bere idazti onetan, ala dirudi beintzat.

Bonaparte Efegegai edo Principe'k London'n argitaratu zituan bere « San Juanen evangelioa » ta « Jesusen honra ta amoretan kopla molde gutikoac » izena duten bi idaztitxo.

Argitaratu gabe Napa'oko Aldundi etxean arkitzen dira :

I Sermones Cathetici Consentanei ad Cathechismum Romanum, Ab anno 1771 « Vasconice ».

Azalaren baruko aldetik « Fede, esperanza, ta caridadearen Actac uscaras » dakartza ta oien ondotik itzaldi auferako otoitzak lateraz.

« Cembait predica ta platica uscaras, Urte gucico igandeetan ta berce cembait jayetan predicatuac aldiritan Jaungoicoaren gloria ta animen prochuetao milla zazpitan egun ta iruetan ogei ta ameca garren urtetico alcina ta librugontan nasteca ezarriac » 109 itzaldi dakartza 455 ofialdetan; ofialde bakoitza bi saletan berezirik.

II. Azaletik 3 zenbakiarekin izentaturik dagoan Lizañagaren Idaztiak sail asko ditu.

1^a. Jesu Christoren Vicitzaren historia laburkiro; eta beraren Ama Virgíña Maria SSmarena Videnabarr : berechsis mysterio celebratzen direnak urteaz elizan, conatzeco itzez itz, nai badu bacocha bere aldian », 54 ofialdetan.

2^a. Ufengo amaf ofialdetan dakartza « Cembait dotrina M^a SS^{mme} emanac Sor M^a de Jesus Agredacoari ».

3^a Idazti ontan 64 ofialdetik aufera zenbakitzen asten da beritik ; 1^o tik asten da ta ba-ditu 128 ofialde. Eta emen dauzka « Sandu cembaiten vicitzac euscaraz la-

burrquiro paratuac... » « Berehcsi dire Aita Pedro Ribadeneirac contatzen tuenetatic. »

III. *Elcano* gañetik daukan idaztiak CCXVIII ofialdetan lengo idaztian jaří diñuan bizitzak beste era batera idatzia. Gero amairu ofi osoak Ama-Birjiñaren onra ta amoretan egindako neurtitzaz betea dauka.

*
* *

Lizařaga'ren beste idatzi batzuek.

I. Gure, Buruñurdunen Iruña'ko Bakařtegian ba-degu bere eskuz idatzitako neurtitz asko dakartzan idaztitxo bat. Aufena « Sacris solemnīs hymnoaren guisara cembait copla Jesus onaren honra ta amoretan »; dauzka asko neurtitz (21 ofialde). Gero « Pange lingua euscaraz » ta ufengo 29 ofialdetan (Bi eřenkadadunak) « Passione Santuas ».

II. Bigařen idazti bat bere jaitetxean arkitua da « Sermones de Decalogo et Oratione Dominicali ». Irureun eta larogei ta lau ofialdetan.

III. Bere jaitetxean arkitu dudan irugařen idaztia da « Erien ongui maneatzeco eta ongui iltzen laguntzeco cembait itzgaien oroigafi ta asiera. » Eun eta beřogei ofialde euskeraz beste amaika laterazko otoitzakin.

Idazti guzi auetan Goi-napař egoaldeko euskera utsutsa derabil.

*
* *

Luis Luziano Bonaparte.

Inglatera'ko Worcester'en jaio zen 1813'an eta Fano'n (Urbino) il zen 1891'ko Azaro'ko 4'ean. Napoleon 1'koaren bigařen anai Luziano'ren bigařen semea zen.

Ez zun eřien zuzentza lanetan sartu nai izan. Naiago

izan zun izkuntz ikaskuntzetara jaia bizi. Gazte-gazte-tandik izan zun gogo bizia ikaskuntz otarako. 1848'en urteko nasketa ondoan sartu zen Frantzian. Korzega'ko saiets batean eñiaren ordezeko aukeratua izan zen Asamblea Costituyente'rako. Ufengo urtean ezezturik gelditu zen aukera ori, baño gero Sena'ko alderdian beñiz aukeratua izan zen. Frantzi'ko Erburutza beñitzean Senadore'tako autatua izan zen eta Eregegaiaren izena itzuli zitzaion eta *Alteza* esaten zitzaion andik auffera.

Oxford'ko Ikastol-Buru edo Universidateko Irakaslari izatea irabazia zen, San Petersburgo'ko Jakintsu Alkafatasunen Lagun-omenezkoa ta España'ko Edestilari Jakintsuena ere 1883'ean beren Lagun-omenezko aukeratu zuten, baita Eskozia, Londres eta beste alde askotako Jakintsu Alkafatasunak ere aintzat zuen ain gizon aundia beren Lagun omenazko izatea.

Bera ibili zen Bizkai, Gipuzkoa ta Napa'foko eñi askotan euskalki mota guziak biltzen eta añitzekoa dan garbitasun eta argitasunarekin bildu zituan gure euskalki geient-suak eta egin zun bere *Le Verbe Basque en Tableaux* deiñu zun idazti aña'ia. Euskeraren zortzi euskalki bu-ruak, au da, Gipuzko'koa, Bizkai'koa, Goi-Napa' Ipafal-dekoa, Goi-Napa' Egoaldekoa, Laburdikoa, Be-Napa' Sar-kaldekoa, Be-Napa' Sortaldekoa ta Sulet'ekoa beren jolaskera guziekin bertan dakartza. Bost ibilaldi egin emen zitun amairu urteen buruan, 1856'tik 1869' gañe-neraño.

Gañera Eñonkari'n jakin dutenaz, ango gizon batzuek, bost, esan zietenaz, bi Bidangoz'koak, Biañitz'en iduki zitun jana ta eguneko bostna pezeta emanaz.

Jaun auxa da, ba, egundaño euskeraren alde lanik aundiena ta gogofena egin duan gizona. Onen lanak eñiaren eskuetan ibili ba-lira, etzitzagun euskera galdu zaigun aña galduko naski.

Bonaparte'ren idazti guzien efenkada « Revue Internationale des Études Basques' » en, 1907'koan, 164 orialdetik 166'era, Lacombe Euskaltzain jaunak egiñik arkitzen da.

Afen egunetan euskera bizi zan gauñ aztarnik arkitzen ez dan efi askotan; eta gañera berak afkitu zituan garai asko, oso atzendurik daude orain euskera itzegiten dan erietan ere.

* * *

Munañitz'en arkitua.

Munañitz, Goñibañ'en arkitzen da. Efi ontako apez etxean arkitu diñut itzaldi batzuk. 1826'gn. urteko itzal-diak dira. An dakañen aditz laguntzalea onako au da :

eztut,

du, 1; duena, 1; eztuena, 1, dituela, 2;

digu, 1, digula, 8;

duzute, 7; duzutela, 2; dituzutela, 6;

duten, 3;

diozu, -diona, 1;

dizute, 6; dizutena, 2;

dizutet, 1;

dezagun, 8; dechégun, 4 (ditzagun);

dezaten, 3-5;

dedin,

zarade, 1;

da, 1; dan, 2;

zaratela;

dirade, 3; diradela, 2;

zidan, 2;

zion, 1;

ziraden, 3; zirala, 4;

zaigu, 8; zaizquigu, 1;
zazu, 1; echazu, 1; « para echazu ».
zazute, 2; ezazute, 2; « alcha ezazute ».
zizaion, 5;

zaitez, 1; zaitezte, 1;
zinaquetela, 7;
baluca;

ninzan, 2.

*
* *

Nabarlaz'tar Joseph-ena.

Nabarlaz-tar Joseph, Makiriain-go Apaiz jaunak egin-dako bederatziurén bat, Jose deunarena ezagutu dut Uarte-tar Jose Mari Iruña-ko gazte argi ta onari eskerak.

Bederatziurén ori eskuz idatzia dago. Or dakartzan aditz laguntzalearen garai guztiak ara emen :

dut, 17; duda, 4; « duda gauza ».
duzularik, 13; dituzularik, 10; tuzun, 6;
badu, 4; tuen, 10;
duguna, 2-8;
tiozute, 4;
dute, 7; eztuzte, 7;

Zindue, 3-20; zinduen, — zinduen, 5;
zue- (azkenekoan); zuelaric; baizue, 14; zuen, 12; zituz-telaric, 14;
Zinduze, 22;
zute, 19;

Zinela, 21;
ze, 16; baize, 4; yzanze, 22; zelaric, 4;
dire, 10; diren, 10;
dizun, 15; dizquitzu, 16;

dizquiguzu, 5;
dio (azken), diogun, 5;
dizugu, 1; dizugun, 5; dizquizugu, 5;
zizun, 6; baizizu, 3;

zindio, 4;

zaizu, 11; zazquizun, 2;
caicon (zaikon) « Desagradatzen caicon guzia »;
zaigu, 11; bazaigu, 15;
zaitugu, 1;

gaituen, 5;
gaituzten, 11;

zaguzu, 13; gachazu, 1;

dezan, 16;
zechan, 16; zechaten, 14 (zitzaten);
gachazun, 2; ezcachaten, 7;
zagun, 2; zagungatic, 2;
dezaguzun, 2; dazaguzun, 5;
dechagun, 8;
ezagute, 3;

eztezaquena, 2;
daitezen, 6;
eztadien, 9;
izanzedin, 4;
izanzedien, 7;
izanbedi, 6;
zediegatic, 11;
luquen (nailuquen).

Aditz guzti au, Esteribar eta Ultzama'koaren nasketa
besterik ez da.

*
* *

« *La Profecía de Jonás* traducida al vascuence, dialecto navarro del valle de Baztán, según se habla en villa de Elizondo, por Don Bruno de Echenique. Londres, 1862. »

« Jonas'en Profecía ».

Onek dakartzan aditz laguntzalearen garai guztiak gaufer ere berdin esaten dituzte Baztan'en. Ara, bereak :

naiz, 5;

zara, 5;

ezta, 13;

zait, 14;

zaitzue, 6;

zaicun, 4;

zaitut, 15;

zaitugu, 6;

nitzen, 8; nitzena, 13; nitzelaic, 13;

zen, 1;

ziren, 4;

ninduzun, 7;

ninduen, 7;

ninduten, 8;

zazu, 3; etzazula, 6;

zagun, 4;

zioten, 5;

zaben, 5; « ecen uste zuten guizonac Yaunain aurpegitic
iges íten zuela ceren berac ala man zaben entendi-
tzera. Eta erran zaben : arnazazute ».

ziolac, 3;

zaite, 3;

zitiozten, 6;

ut « pagtucoat Yaunai », 9; eztut, 15;

duzu, 5; tutzuna, 15; « becatuec barcatzen tutzuna »;

badu, 4; « uzte ute aren misericordia »;

nuen, 7;

zinuen, 7;

zuen, 3; etzuen, 12; zituena, 15;

zuten, 5; zituzlen, 6.

*
* * *

Lesaka'ko Apaizarena.

« Zerura nai duenac ar dezaquean bide erraza D. Joseph Miquelstorena, Lesacaco Apezac eracusten duena, Iruñean, Logas echean. »

Idaztitxo au Arburua'taí Teodoí Etxalaí'ko Apaiz-Lagunari eskeřak ezagutu nuan. Ortan dakařen euskera alderdi artan itzegiten danaren antzeko euskalkia da, baño gipuzkoerara jaía dago garai batzuetan.

naz	nintzan	dut
zara, zera	ziñan	duzu
da	zan, zen	du
gara	giñan	dugu
zarate	zinaten	duzute
dira	ziran	dute
nazazu	zait	nuen
nazala	zaizu	zinuen
nazazute	zayo	zuen
nazatela	zaigu	ginuen
	zaizute	ziñuten
	zaizte	zuten
zindudan	zidan	didazula
zinduen	zizun	dida
zindugun	zion	didazute
zinduten	zigun	didatela
	zizuten	
	zioten	

zindetan	dizu	nuque
zindezin	dio	ziñuque
zindegun	dizute	luque
zindeten	diote	giñuque
		ziñuquete.
zazu	nitzaquen	
zala	ziñitzaquen	
zazute	zitzaquen	
zatela		

Emen agiri danez idazti onen egileak Lesaka aldeko euskalkitik artu du bere zara, gara, zarate, duzu, dugu eta beste batzuek, baño euskalki onetako nintzen, ziñon, zen eta abar, gipuzkeraz derabiltza. Berdiñ egiten du euskalki ontako ziñudan, ziñun, ziñugun'ekin eta.

*
* *

Labaiño dotriñatik.

Kristau-ikasbide eskuz egindako zar-zañ bat da orain ikustera goazena. Iruña'ko Aita Karmel'dañetako Elias Anai euskalzaleak utzi zidan au.

Noiz egiña ote dan ezin esan degu baño, izkiaz ezagun du zara dala.

Ontan arkitzen diran garaietan ere ba-du gaurko alderdi artako euskeraren aztarnaen bat. Ona bere garaiak.

dut eta dudala	zenuen
duzu	zuen
du	gintuen
dugu	zuten eta zituzten
дутен	
dadien	diezu
dadiela	diezagula

zaiteque	ditiegun
daiteke	« diozogula » ebatsi ez
« diozogula »	
zion	gaitzan
zition	dezan
zigun	dezagun
	dietzaguzu

Idazti ontan arkitzen diran *diezu* ta bere salekoak, *diezaguzu* ta *diozagula*, ez ditut arkitzen alderdi artako oraingo euskalkitxoan.

*
* *

« *Manual de Gramática Bascongada por D. Victoriano Huici, Presbítero.* »

Iruña'n 1899'an argitaratua da idazti au. Bere Egilea, gaur Jesus'en Lagundi'ko seme argia, Etxaíi-Aranatz'en jaioa da. Bere idazti onetan garai askotan nasten du ango euskalkitxoaren bukaera, naiz geienean gipuzkoerazkoa erakutsi.

Berak adirazten du aldaketa au¹ esanez : oartu naiz *aditzen* garai askotan, askafezko edo pluraleko bigaíen eta irugaíen lagunen esanerak, banak dirala Baíanka'ko efi aunditxo batzuetan. Etxaíiaranatz'en, Arbizu ta Lakuntza'n (2) ibiltzen dute *bie* bukaera : *amatu dezubie-erosi biau zubie-ikasiko dezubie-eraman bear debie*; Ergun'n (Ergoiena) *dezíe* bukaera ibiltzen da : *jan dezíe-il dezíe*; Borunda'n DEZEI : *íkusi dezei-jan dezei* eta beste aldaketa gutxiago esan nai duen batzuek, auek nere iritzi estuan gipuzkoera ta bizkaieraren ustelkeri batzuek besterik ez dira. Bere efíko aldaketa batzuek lena gipuzkoeraz ta

1. Ikusi 16-gr. or.

urēna bere efiko erara ekartzen diñu. *Dezute* edo *dezubie*,
dute edo *debie*, *ziñulen* edo *ziñubien*, *zulen* edo *zabien*¹,
balau², dau edo du³;

nik maitatzen ziñustel = yo os amaba⁴.

ziñuzte = os amaba

zinduztegu = os amabamos

zinduztien = os amaban

maitatzen nitūben = yo les...⁵.

ziñuzkien = tu les

zituben = aquelles

giñuzkien = nosotros *ela*.

ziñuzkiten

zitubien o zizuten

maitatu ziñuzkit = te amé⁶.

ziñuzki = te amó

ziñuzkiegun = te amamos

ziñuzkiten = te amaron

maitatu giñuzkizun = nos amaste⁷.

giñuzkien = nos amó

giñuzkieguzuten = nos amasteis

giñuzkieten = nos amaron

maitatu nezazu = Amame⁸.

nezala = Ameme el

1. 17-gr. or.

2. 20-gr. or.

3. 21-gr. or.

4. 28-gr. or.

5. 30-gr. or.

6. 30-gr. or.

7. 30-gr. or.

8. 31-gr. or.

nezazute = Amadme

nezatela = Amenme ellos

nik maitatuko ziñuzkiet edo ziñuzketet = yo os amafia¹.

ziñuzkie = el

ziñuzkiegu = nosotros os....

ziñuzkiete = ellos os

maitatu nezakezu = tu me puedes amar²

nezake = el me puede amar

nezakezute = vosotros me...

nezakete = ellos me...

maitatu zezazket = te puedo amar³

zezazke = te puede amar

zezazkegu = te podemos amar

zezazkete = te pueden amar

maitatu gentzazkezu = nos puedes amar⁴.

gentzazke = nos puede amar

gentzazkezute = nos podeis amar

gentzazkete = nos pueden amar

zuk esan niezu — niezkizu = Tu me la o las has dicho⁵.

zuek esan niezute — niezkizute = Vosotros me la o las
habeis dicho.

esan dite o dutie — dizkite = Ellos me la o las han dicho.

zuk esan ziguzun — ziguzkizun = Tu nos la o las dijiste⁶.

1. 33-gr. or.

2. 33-gr. or.

3. 33-gr. or.

4. 33-gr. or.

5. 39-gr. or.

6. 41-gr. or.

esan zigun — ziguzkien = El nos la o las dijo.

esan ziguten — ziguzkiten o zizkiguten = Ellos nos
la o las dijeron.

nik esanen nookete — noozkete = Yo los diría la o las¹.

zuk esan nizakezuke — nezazkezuke = Tu puedes decirme
la o las².

Garai guzi auek Etxaíarianatz'ko erara dira, baño bat
baño geiago gipuzkoerazko bukaera emateagatik asko
aldaturik daude. Argatik ez alde batekoak eta ez beste-
koak gelditu dira. Etxaíarianatz'ko euskalkitxo guzia ba-
tean argitaratzean argi ikusiko da egia.

(Dato'en zenbakian jaraituko da.)

1. 43-gr. or.

2. 43-gr. or.

INTZAR DAMASO AN. BURUÑURDUNAREN

EUSKALTZAINDIA'N SARERAKO ITZALDIARI
OLABIDE'TAR ERAIMUN AITA JOSULAGUNAK
EGINDAKO ERANTZUMENA

Otzurfean bezela, Napafoan zear ibilitakoan, gure euskaltzain beñi Intza'ñ maitea datoñkigu, bazteñik bazteñ bildu dituan euskal-aditzaren bereizkiñak edeñki moltzokaturik aurfkezten dizkigula. Nik yakinda, kizki bakar bat Ziordia'n aztula gelditu zayo. Ango euskaldunak, *yuratai* esan oi dute, giputzak eta napañ geyenak oi duten *didate*'ren orde. Beste utsunerik ez det kopuru izugañi oñtan aurfkiñu. Lan ofen antzeko batzuek ageriko ba'lira, *lingua navarrorum* VI Santxo Yakitunaren aitofez dan euskera gaxoa, gaufkoan baño ezagunagoa laster izango genuke.

Norbait añitu liteke, *Zeruko Argia* euskaldunei ila oro zabaltzen ari dana bera, euskal-txordoketan ain maratz ta ayolatsu ibiltzen ikusirik. Ez dago, orde, zeri añitu. Kisto'ren apaiz zintzo ta euskaldun yatofari dagokionez, diardu gure aizkideak ofelako lanetan.

Ixilikan Yainkoak bañetik gizonaren burua argitu ta pioleta eragin dezake, berez ta bitañtekorik gabe gurekin yardun nai duan bakoitzean. Baña norbait bere ordekoztat aukeratu ta zeruko argia Eñian zabaltzera igofñzen duaneko, ofen mintzo ta itzak dira Eñiak beretzat duan Yainkoaren argiz piztutako zuzia. Euskaldunei argi egiteko aukeratu danak euskeraz eza'leki, zuzi itzali ta alpeña izango litzake. Ta ezin igañi det ori baño elgaitz gogofagorik Yainkoaren aseñeak bidali litzagukenik.

Euskal-aditzaren bereizkin bila zenbiltzanean, ofenbesteko zigofa Euskaleñitik ufutiratu tifiñaz zenduzkaten

noski, apaiz euskaldunaren biotzean, Asis'tar aundiaren semea ba'da batez ere, nausi izan bea'f duten maitakuntza biok; Yainko ta Euskale'riarenganako maitakuntzak; Yainkoaren ta Euskale'riaren bitartekotzat ya'f ziñalako, apaiztu ziñan egun zori ontsu artatik.

Zuzen ta bidez gurean euskaltzaiñok gau'f danik zauzka-kegu, ta Elizondo'ra, euskal-usaiñez lufindutako uri maitaga'f ontara eto'riak gaituzu, zure lan yakintsua ezagun ta guretu nairik, eta baztanda'f zintzoen au'fean abegirik laztanena napa'f bikain zeran o'f erakustekoak.

Ongi eto'fia. Besoak zabal zabalik zure zai aspalditik geunden. Zatoz.

¿ZERTARA?

Yaunak; galde o'f erantzun bea'f ta, zuen baimenaz zerbait erantzutera nato'f kizue.

Lepotik laste'f zintzilikan ikusiko diozute ezauga'f itxo bat; gure arloa be'ñere aztu ez dakigun, euskaltzaiñok bula'fean daramagun ezauga'f itxoa. Areitza ta Gurutza bertan baturik daude, gu Euskale'riarentzat eta Euskale'ria Yainkoarentzat erabaten eske'ñirik gaudela aito'f tu nairi-kan. Euskaltzaindiaren asmo erabakia ori da-ta; ori, gure lanerako ziria. Ga'ñean, lotu gatzazkion itza : *ekin eta ya'f ai*. Orixe da gure guda-deya.

¿Zertan ekin? ¿Zertan ya'f ai? Euskera piztu ta dago-kion maipuruan bein betiko nausitzat ya'f i dezagun.

Lotsaga'fia da gure E'fi maitean aspaldi aspalditik ger-tatzen dana. Senegal'da'f ak France'n bezela, euskaldunak beti a'f otzen arazoetan murgildurik gabiltza. Euskale'ria aztuta, atze'riko naspiletan euskaldunak au'felari beti, au'f eneko le'foetan bu'f ukari. Zuri naiz beltz, go'f ri naiz

urdin, ez da atzerian ikusiñik eraikitzen, euskaldunok ara berealaxe su ta gar jotzen ez degunik. Arotzentzat egiñak bide gera; ayen zama yasotzeko, ayen kezkaz urduri ibiltzeko; ayen atsegiñez pozteko; ayen eduz agertzeko; ayen izkeraz mintzobeafak; ayen edera orotan irabazi ta eukitzekoak. Euskaleña baño egokiago Mofoi-ña deitu gaitezke. ¡ Ain gera arotzarekiko tiñel ta adei-berak; gure Eñiarekiko, beñiz, sorayoak !

Ez da, baña, Euskaleña betiko il. Lozoñoan antziñeko aspalditik etzan ezkeror, esnatzen asi da, bere baitara itzultzen, bere bizitza, beñere ez uzteko, birañtzen, bere indaña zuzpeñtu ta sendotzen. ¡ Au miña ! Lotan zegola, Yainkoak emandako izkuntza aitzen yoan zayo; mintzatu beañ, ta mintzatu ezin. Euskera biñindu, akastu, erdoitu, toildu zayo; toki askotañik igesi; toki askotan bazteñtu; toki orotan makal ta maskañ gelditu da. Euskera ez da euskotañ askoren mintzoera. Iruña'n, Bilbo'n, Gazteiz'en, Napañoa ta Araba'ko alderdi zabaletan erdera dute euskotañak izkuntza bakañtzat.

Euskaldun utsak, ango anayekin ezin añ-emanik euki dezakete, ezin elkañ itundu, ezin elkañ bizi dira, oñ andik bafeyatutako mintzo-bikoiztun euskotañen bidez izan ezik eta bitañtekorik gabe. Oñela elkañ dabilta arotzak, atzeñitañak; eta oñela ibili beañ diran anayak, geroago ta arotzago ta elkañen añtean atzeñikoago geldituko dira.

Elkañekiko uleñpiderik gabe, anai-bizitzarik ez dago. Odolkide ta eño batekoak izan añen, elkañ uleñtu al izan ezik, oñelako anayak banatu beañak dira, belaun-etxea utzi, ta nor bere bidetik aldenduz.

¿Nora, baña?

Alderdiren batek euskera galdu duanekoxe, zugatzetik adañ moztu edo beintzat igañtua bezela, Euskaleñitik erori

ta aldentu agiñik gelditzen da. Arako alderdiaren eta euskeraz dirautenen artean, gogozko muga bat, zedañi ta esi guziak baño igarogaitzagoa, yeiki da. Ta bidenabañ, erderatutako alderdi ura auzoko atzefitik len berezi zuan muga erori egiten da, guk galdu deguna atzefiari eratsi ta nasi beañez uzten dualarik, aren bañnean, ibayak itxasoan bezela, irentsia izan arteño. Eríojá, Huesca, Santander egoaldeko erdia ta Burgos ipaíekoa ofela aldentzen yoan zitzazkigun, Napaíoa ta Araba'ko alderdi batzuek bezela, euskera, ta euskerarekin beren yatoría aztu ditutelako.

Oña, ba, Euskaltzaindiak bere gain artutako arloaren sail bat : sail bat, diot, ez arlo osoa; euskotar guziei euskera itzuli; Euskaleñiari bere mintzoa biguñi.

Giza soñean odolak egiten duana, arnasa, azkuñi ta beroa ataltxo guzietara tai gabe eramanik, orixe Eñian egiten du bere izkuntzak. Ez da Eñia lufalde batean bildutako nolanaiko gizatalde edo samalda. Eñia egiteko, odol bateko, eño bateko lagunak muga berberaen bañnean pilotuta bizi ditezke. Eñia egiteko, lagun oyen artean, ba-koitzaren asmo, eginbide ta yarduera elburu batera zuzendu, yauñi ta pizkoñtu ditzaketen indaña, ta indañ ofentzako elkarbidea noraezeko edo beañ beañak dira; giza soñaren atalak batera bizi ditezen, gogo ta odola beañak diran bezelaxe. Laguntaldea Eñia izaten asi ta yañai dedin, beste elkarpiderik ez dago, guzien artean ibili beañ dan gogo-odola, edo izkuntza baizik. Eñi-izkuntza puzkatzen duanak, Eñia bera puzkatzen du. Puzkak batera yo dezaten, ta soin goñdin ta iraunkoñean beñiz bildu ditezen, izkera batu ta itzuli beañ zaye. Erderaren bat edo bat, edo euskera, guziontzako elkarpidetzat beaña degu. Oroñt-

zako elkarpide bat gabe, Eñian baturik ezin bizi gaitzke. Bestela, Euskaleñiarenak egin du. Euskaltzaiñok zin egin degu euskera, Yainkoak ala naita, gure Eñian ernetako euskera maitea, Euskaleñian elkarpidetzat irozo beař dala; ta asmo au iritsi ařteraño, egundoko neke ta buřukagatik, beñere ez gera atzera biguřiko. *Ekin eta yařai*, asi ta iraun, ekiñez beti, leñenak egiñez, euskera Euskaleñian lengoratu ta nausitzat yařtzen. Auxe da gure ziña; auxe guda-deya.

Ikusi dezagun egiteko oftan zein ditezken zoztořik nau-sienak eta zoztoř abek pořokatzeko bideak.

Euskera piztu miñez gabiltzan guziok, zoztořtzař bat bertatik auřkitzen degu; euskera euskaldun guzientzat bat ez dala. Giputzak beren euskera dute; lapuřditařak berena; goinapařak ere berentzako beste bat. Iru euskalki oyen ařteko bereizkiñak ez dira, noski, izugariak. Neke gořirik gabe, euskaldun guziok elkař uleřtu ta yadun dezakegu, nork bere euskeraz egiñik. Euskalki oye-tako bat oi darabilgun euskaldunok besteetan zailtxo ta ilun xamař lendabizi uste deguna, lasteř ta eřaz argitzen zaigu, ta zerbait yadun ezkero, nasaikiro gabiltza beste edozeñiarekin izketan. Baña euskal-adař irukoitz ontatik Bizkai'kora igarota, uleřpide zalagoa oařtzen da; ta are zalagoa, Benapařo ta Eřonkari'ra, ta Zubero'ra batez ere igarotzean.

Ez dakit euskal-adařpilo ofetzaz zuen iriltzia zein dan. Edestiaren begiak yo dezaken antzin antziñeko aspalditik uri-arazotan bakanduak, gure kaltetan bizi izan gera euskaldunak beti; i of, ni emen; moltxoka, eřemuska; beñere guziok, anayak izan ařen, uri-baltzu bakař bat, beař genukenez, egin gabe; maizetan, osterá, elkafi buřukan ta gudatan. Of dabilta gauřkoan ere batzuek, antziñeko

ta zaia Eñian dana yatoitzat aiturik, ofela geroenean ere bakan ta elkar baztertuta euskaldunok bizi bea gerala, mutiriki zaunka ta garasika. ¿Zer ba? ¿Aspaldiko zauria, aspaldikoa dala-ta, sendatu ba'diteke ere, ez sendatu bea? ¿Biraolari zaia, aspalditik biraotan ibili oi dala-ta, biraotan iraun bea al du? Euskaldunok, ofelakoen aburuz, antziñeko okerbideak ezin utzi ditzakegu; beti elkar bakan bea degu, autsa bezelaxe, edonongo aizeak eraman gaitzan, Eñi sendoa beñere atondu ez dezagun.

Uri-arazotan gertatu zaiguna, ta ain zuzen ere gertatu zaigulako, euskal-arazotan ere gertatzen zaigu. Euskera orde, euskal-autsa ugari degu; zugatzaren orde, ziztapurak; ogia beaean, otzurak. Matoya edo gaztanbera zumitzera baño len, gaztagiñak puzkatu oi dute, puzkatxoetatik gazura berez ta estutu gabe dariolako, ta abatzean eiazago kentzen zayolako. Orixe gertatzen zayogure euskerari. Puzkatu, ta erdera indaitsu biren erdian yafita dagolako, ertu ta igafutxe gelditu zaigu.

Ez nintzake ayola, ainbeste euskalkitan euskera uratuta ikusirik ere, euskal-idaztiyasa guretarthan eraunsten ba'nekus. Baña ¿idaztiyasa nola izan dezakegu, ofen apuftuta bizirik? Bizkai'ko euskeraz egindako idazti naiz egunkariren bat argitara datoñala demagun. ¿Nork irakuriko du? Bizkai'ko euskaldunen moltzoan aufkitu ditezken irakurleak bakañik. Berealaxe erakutsiko dizuet Bizkai'ko euskaldunen moltzoa, ta ango euskal-irakurleena ez dirala bat. Euskaldunik geyenak, euskal-irakurletzat ezin aitu ditzakegu. Gipuzko, Napaña, Lapurdi ta Zubero'ko euskaldunentzat arako idazti edo egunkaria, ezpa'litz bezela, izango da. Ta ofela izan ezker, ¿uste al dezute argitara ateratzeko idazlerik dagokela? Giputzak, napañak, lapurditañak irakuri zezaketen, beren euskalkietako bat edo batera itzuli beaño litzake; ta gero zuberotañenera ere bai, zuberotañak irakuri bea ba'lute.

Alegia, euskal-irakufle oroentzako egunkari baten ordez, iru, bederen, argitaldu beař ditugu; bakoitzarentzat irakufle eli txikitxo baizik izateko. ¿Ori al ditekelaokan al zaudete? Ez yaunak, ez. Iñork ez du dirurik, ez lanik, alpeřetan eralgitzen. Irakurř dezakeanik ezpa'dalakoan, iñork ere ez du idazten, edeřki idazteko lain ba'litz ere. Baña beřiz galdetzen dizuet; ¿idazteko lain danik al dazauzute? Ez zuek, ez nik ere. Ta ona zergatik ta noizař-teraño.

Gutxi dira, noski, eskolagabeko euskaldunak. Eskolatik, baña, euskaldunok zer atera dezakegu? Eskoletan euskera ito, edo euskaldunak ezer ez ikasi beař.

Eskolara orduko, atadian bertan, gure umetxo euskaldunei oñazkafen buřunba antzeko otsez esaten zaye; *lasciate vostra lingua voi ch'intrate* : utikan euskera, sařtu zeratenok. Euskerarentzat tokirik emen ez dago; eskola erderarena ta erderarentzat baizik ez da. Erderaz izan ezik, emen ezin diteke itzik ere ez entzun, ez egin. Euskal-usaiñik ere ez da emen zilegi.

¿Emen esan det? ¿emen bakařikan? Bai zera. Ez emen, ez landan. *Lasciate vostra lingua voi ch'uscite*; eskolatik irtenda, utikan ere euskera; itzik ere ezin oř landan eskolariak egin. Zezenei mutuřetik oboa ezařtzen diegu, ezirik eukitzeko. Ume euskaldunei euskera erantzeko, *erastuna* eskoletan eman oi zitzayen, ta oraindik ere zaye. Erdaleřian antziñekoak oi zesaten : *la letra con sangre entra*. Euskaleřian esakunik kutunena beti izan bide zaigu; *euskera odolaren odolez irten bedi*. Iñoiz ere bestela ez degu euskaldunok eskolakoetan yardun. ¿Etsayak, ařotzak, garaitzaleak gogořean ořtara beařtu gaitutelako ala? Ez noski; egia aitořtu beař degu. Ařotzak ez zazkigu ořetan nasi azken urte abetaraño; ezta ezin egon diteke

ere Efi biziari ofenbesteko bidegabekeria irentsi erazteko arotz indartsurik. Gerona da aalke osoa; gu gera obendun bakañak; gu geronen itotzaleak.

Oñelako eskoletan ez ikasbiderik, ez giza-azkuntzarik, ezin aitu izan ditute gure umeak. Inñori ere burura ezpa'datorkioke Navalcarnero'ko edo Valladolid'eko umeak dana doitxeraz, edo txineraz edo euskeraz irakasten zayen eskolatik ikastunak irten ditezkeela; ezin igari det zelako zimañkunkeriz gure ume euskaldunak, Navalcarnero'koak bezain kamus ta iluntan ez diran gelditu beañ, Gazteleñi edo France'ko erdera ba'da ayen ikaspiderako izkuntza bakaña. Alperik, urteak yoan ta urteak etofi, oñelako eskolalara ume euskaldunak yoko du. Utsari utsal geituz, beti uts.

Oña, ba, eskola deritzan, ta euskeraren iltzerako bañanda edo pika obeki deitu beañ litzaken lokatzatik, euskaldunok ateratzen deguna; ume euskaldun geyenak andik kamus irten beaña, ikaspiderik gabe; ikaspide bila ayolaz artaratu afen.

Umerik geyenak esan det; bai dakidalako of ta emen, noiz edo noiz, bakan bakanetan ba'da ere, aurkitzen dirala irakasle euskaldun batzuek, ixilean bezela, euskerara yotzen dutenak, ikasleak erdera ikasten asi ditzeten, eta eskolan erabiltzen diranetako zedozertxo aditu dezaten. Ixileko irakaste oyen bidez, ta kalean ikasitako erdalapuñez, ume batzuek irakasleak azaltzen diena nolarebait susmatu ba'dezakete, ayek bakañik, guziei zatitu beañ litzayeken yakite-ogitik apuñen bat edo bat berentzat aitu ta ateratzeko lain izango dira. Besteak maipe gelditu beañ.

Ta ara, erdal-eskolatik Euskalefiak aítzen duan beste arnari ustela. Galbayak garia zaboíetik bereizten duan bezela, gure aúfentzat dauzkagun eta beti izan ditugun, eskolak ere, alde batera erdaldutako umeak, eta bestera euskaldun utsak bereizten ditu; euskaldun utsok, ikasterik gabé; erdaldutakoxeak, ikastun xamaíak, eta geroe-nean, ikaspidetik aúferatzekoak, baña euskeratik sayes-tuak. Erdaldutako mordoxka ori, aúferago ta ikaste berie-tan areago ekiñik, gure ikastuntaldea izango da. Talde órtaíak irakuíle, idazle ta irakasleak soítu beaí dira; gu-ziak, ordeak, erdaldun utsak edo alakotsuak, bidean eus-dera galdu dutelako. Aspaldi aspalditik Euskalefia bere umeak bae lotsagaíi óntan eralkitzen ari izan da, euskal-dun utsak ikaspidetik onuntz, ta erdoratuíakoak aruntz eragiteko. ¡Euskalefi itsu ta gaxoa! ¿Ez al dezute orain argiro ikusten zergatik arestian nesaizun euskal-irakuí-lerik nekez aúíkitu genezakela, euskaldunem moltzoan bertan? ¿Euskal-idazlerik ez datoírkigu-ta, aítu ote gai-tezke? Aíítuagorik, noski, nago, euskera ezpa'zaigu; ófen-beste ezkeró, osorik il.

Osorik il ez, Yainkoari zoí. Baña ¡zeñen elbaíi, zeñen iñul, zeñen makal eldu zaigun! Beñola enboí sendo ta adaburu zabal órítua goruntz zekaírtzian gure izkuntza, gauíkoan andu motz ta eíro írotua baizik ez da. Gauíko Efi maratz ta zolia ari beaí duan arazotan, euskera uzkuí; motel, markets ta erabilgaitza dakusgu. Giza-aúferapide geyenetatik ufutian beti bagituta; yakintzarako ataufetik ostlikoka beti estieraginda; uri aundietan eta Efi aúfera-tuetan dabilTZan arazoetara úfbildu nai lukenik iñoiz ere aúíkitu ez zuala; euskera gaxoa, gure arbasoak utzi digun ilobian datza piztutzaícaren iguri, *yeiki ta abil* dasayoke-

naren zai. Andik atera beař ta nai degu, ta eguzkilara ekařı, lenbaitlen egurastu, zuzpeřtu ta pizkořtu dedin. Aren zauriak sendatu, utsuneak bete, indařa gordindu, kemena goritu beař dizkiogu, euskera beřiz ta betiko euskaldun guzien eta guzielarako elkařbidea izan ařterařo. Arlo latz ta neketsu ořtara batu gera euskaltzaiřnok, ta gauřdanik, Intza'ř maite ori, lankide azkařa zatozkigulako, poz pozik gaude. Ongi eřořia. *Ekin eta yařai* len bezela, len bařo azkařago, geroago ta isitukiago.

Egiteko zail ta izugaria bai da; ez, ordea, burutu ezin alakoa, endakatu batzuek pozkeriz, ta euskaldun zintzo, bařa belduřti bestetziek, samiřez darasatenez. Euskera biřloratzeko, egiřala egiten asko ibili ařen, auřerapide gutxitxo dakusgu; ori ezin uka. ĆEtsi beař, beraz? Ez, yaunak; bidea aldatu, ta egiten dana uzteke, beste aldetik indař ta lana zuzendu. Orixe, bai, beařa degulakoan nago. Gai onetzaz nere aburua zabalduko dizuet, ia guziok batera yo dezakegun.

Euskera pizteko lanbidea Ćgauřdařo nola asmatu degu?
Euskera bizi dan tokitan eutsi, ta il zan ayetara ilzuli.

Euskaleři mapa baten, azain egokien bidez, erdaldutako alderdietatik euskaldunak oraindak diranak berezi, ta aye-tan zelako laguntaldek euskeraz egiten gutxi ala ezertxo ere ez dakiten oař bedi. Euskal-utsuneak begitara ezkerok, galde au berez otuko zaigu : Ć*utsuneok nola bete?* Ori izan da gauřdařo euskera piztu nairik zebiltzanen auzia. Ta irabazikotzat askok leritzakete, euskotař guziak euskaldunak eginda, edo euskeraz egiten ikusi orduko.

Ustea aņekoa, lana izan da. Euskerarik ez dakiten gure eřitařak ikasi, ta dakitenak beti erabili dezaten, egiřala egin, iņungo ere ziririk aztuta uzteke. Ořtarakoan, gauřdařo euskera aldekoak igi ta ari ayola biziz izan oi dira.

Ziririk egikořena dan aberřzaletasuna ezin uka diteke azken urteotan sorayo ta nagićnak ere iratřařtzeko zeřen azkař ibili dan. Bidezko mozkingalea ere ezařtzen asi da, ogibide batzuetarako sorozkiřnak emanik. Eta naimena daragiten ziri oyekin batera, euskal-ikastea eřazten dukes ten bideak ugari zabaldu dira, gutun, ikastola, abestiak, t. a...

Edeřki, yaunak. Ala beařta. Gure Eřia euskeraruntz leyatzen dala ekite guziok darakuskigute. Nere txaloak ořelakoetan diarduzutenoi. Ala ere, oařtxo bat egin beař dizuet. Elburua yoko dezutenik ez dakit; bayetzean ere, gure eginbeařa egiteko geldituko gerala diotřuet, baldin auřenetik korapilo izugaři bat bein beliko askatzen ezařpa'degu.

Euskaleřian eta Europa osoan gaztařñondorenak egindu. Gure mendimazel edo malkařak osto ořlegiz yantzi zituan, eta bosatugaitzak zeuzkan gaztařñondoa; zura ta azkuřia gure baseřiei zemazkien zugatz edeř ori, *tintleria* deitřan izuřiak yota, agure akitua bezelaxe, irotu zaigu. ĄGaztařnak utsunetan erein, naiz muzkil beřiak landatuz, lengo gaztařñadiak beřiztuko diralakoa ote zaudete? Txulut egingo luke ořelako asmoak. Gaztařa auřenetik sendatu, ala beřiz landatzeko ustea utzi beař.

Ořtan dago gure euskal-auzia ere. Gurasoengandik eldu zaigun euskera, zedendu, irotu, uřatu ta ař yoa daukagu. Orain dagonez, euskaldun *guziak* erabiltzeko lain bařlira ere, *guzielarako* ez ezen, *geyenelarako* ezta ere ezin erabili lezakete. Esan beař diran askotarako, itzik ez du; ixiliřan egon ez diteken askotan, gaufko euskeraz ezin mintzatu; erderara, nai ta ez, asko ta askotan yo beař. Ta yakiřa : Eři baten bi izkuntza bizi ditezke, bakoitza berez *guzielarako naikoa izatekolan*. Bařa, ayetako bata

guzietarako naikoa dala, bestea askotarako ezer ez danean, ezer ez dan ori ito beaía da, ta tokia besteari utzi beaí dio.

Baínetik, beraz, ta bere baitan osotu, geitu ta azkaítu beaí degu euskera, Euskaleñiaren izkuntza izan beaí ba'da, edozein nekeren ordañez, izan beaí danez.

Onela bere baitan osotu ta Eñi bizitzarako gai eginda, lasteí euskotaí oroen izkuntza izango da. Beste edozein izkera landua bezain eíaz ta eiki euskoseme guziak ikasi alko dute; ta erdera ikasteko, euskera utzi beaíík ez daikenean, enda-odola ukatu ez duten euskotaí guziak, berenez ta gogotik bera ikasten ekingo dute. Gauí gertatzen dana, ordun gertatuko litzakenaren neufiltzat ez da aítu beaí. Gauí, egiñala egin aén, eíílaí gutxi euskerara ekaí dezake; eskeintzen diegun euskera, abendaren odolez igortzi ta bere gogoaren atsez luíínduta egon aén, ikasita berealaxe utzi beaí dutelako, abendaren beraren bizitzari dagozkionetan, erdera, nai ta ez, erabiltzen yaíaitzeko. ¿Uste ontan, euskera ikasteko nekea nork aítu nai lezake? Neke ori, beíiz, beste buru batetik euskal-ikaspidetan geitzen zaigu. Xokoí ta motz gelditutako izkuntza, oso azi ta egindakoak baño nekezago ikasten da. Euskera baño guziz eíazago Europa'ko edozein izkuntza landu ikasten duten lagun asko ta asko egun oro dakuskigu. ¿Euskera baño eíazagoak izkuntzok diralako ala? Ez yaunak; euskera xokoí ta moztuta dagolako; ayek, osterá, oso garakoak. Gauí daukagunez, euskera, ongi estaltzen ez gaituan yanzki bat da; yantzi nai, ta emen ausi, an zirpildu, oí ufatu dala-ta, ukondoa, naiz izteía, naiz bulaía, edo dana dala, bilotsik geldi beaí. Gure oldozkun asko adirazteko beaí liraken itzak ez dauzkan

iztegiaren antzekoa da; izki askotarako elatzak peitu zayon elaztegi edo irakola bezelakoxea. Ofelako soñekoa. oso la apaña baño yantzigailzagoa bai da; ofelako elaztegian ezin elatzi diteke ondo ornituan bezain efazki.

Ofen gañera, izkeraren bat nolarebait ikasten asi orduko, gogoan ta ezpañetan gertuena ta sendoena ipintzen diguna da, bera beti ta orotan erabili beaia, begi ta belafielatik erausi ta irakufketan, aloiak intza bezela, bera afu ta edaten ari izatea. Irakufa batez ere ezin ordetu da, Efi-izkuntza aztekotan. Landarentzat eguzkia, euria, goldea ta aziak diranaxe, izkerarentzat irakufa ere da. Ofela landutako izkuntza daukan efi batera orduko, afotzak, ekin gabe ere, ango izkera laster ikasiko du. Efi ofetako semeak, urutiko atzefira bizitza goraberak ba'leramate ere, ango erderaz egin bea afen, bere Efiko izkera gordiñik eutsiko du, uruti artan Abefiaren egunkari ta idaztiak irakuftekotan. Ez da gure aftean ofelakorik gertatzen. Afotzak gurean ugari ditugu; euskeraz itz dagikenik ozta bat edo bat. Guretafik asko atzefira oi diyoaz. Ozta bat edo bat datoikigu euskaldun. Etxera itzuli ta askotsuk amari ezin ezer ulefu, ezta ayei amak ere. Eflandurik ez dago, ofetan, gure Efi bezain matxafa. Ta aalke ofen sustraya, orixe da; gure izkuntza landu ez degula-ta, iñauska, zañil eta bizitza-bufukan ukobera daukagu. Euskaldunak euskeraz, ez yayotefian, ez atzefian ez du ezer irakufitzen; euskal-idazkuntzarik ez dago; euskal-gutunik, gutxi; euskal-egunkaririk bat ere ez. Ezin ere izan, gure ikastun euskaldunak euskera atzefenez ikefi, euskal-uzkin oro bildu, ta yakingai guzietaz, nork bere indafaren arauz, euskeraz yardun ta idazten asi nai izango luken afteraño. Euskeratzaz baño, euskeraz idazteko garaya eldu da.

Edozertzaz ezer esateko duanak, euskeraz besa; idaztoftza eskuratu ta euskeraz esakizun ori adirazi, azaldu

ta zabaldu bekigu. Urtiztilariak, apaizak, auzilariak, legegizonak, nekazariak, ikasgizonak, salerosketariak, guziak, beren kizkia daramatela betozkigu, euskeraz egiten, euskeraz idazten. Lenbiziko argitarakoak koloka, zealdoka, aztamuka, zirkun-zarkun ibili beařak izango dira. Iñoiz umetan ořela asi ezik, ezin gintezke orain gabiltzanez ibiliko. Labakia yo dezagun, otadia okuntzatu; okuntzetan gero ařunteko lanak aski izango dira, zitu yoritsuak eukitzeko. ¡Ura egun aundia euskoseme ikastunak, uřuti bizi izandako seme endakatuak, Ama Euskaleřiaren altzora zintzoki etořtzekoa!

Anařtean, bařa, besoak uzkaılduta ezin egon gaitezke. Gure yakitunak euskeraren alde ezpa'dute etoři gurekin nai; beren Eřiaren odol ta izkera ukatzen beti yařai obesten ba'dute; Ama ondoan gelditzen geranok, lastef, lenbaitlen, ezeren zai luzaroago egoteke, euskera ikaspidetara, ikastetxera eraman ta sařtu dezagun. Ikasterako labe ta yakintzarako atadia, ikastetxea da, umetxoak amaren altzotik ařtzen dituan lenbiziko eskolatik asita, gazte elduak, bizitza-gudatara oso landu ta ornituař. atera beař dituan goi-eskolarařo. Ara, eskolara euskera sařtu, ta ango aulkietan exeri beař da, andik gero irtenda, kalean, elizan, yauregietan, auzietan, lantegietan, salerosketan, itxas-kuntzan, Euskaleřiaren bizibide ta mail oroetan, erosorik ta deduz bizi ta ibiltzeko. Eskolarako giltza, euskerari bizitzarako giltza zayo. Euskerari ez ezen, Euskaleřiari ere. Gomutara ezazute Castelar'ek beřola gure aizkide mamitsu Cánovas del Castillo'ri Madrilgo lege-batzařean, carlistaguda ondoan eman zion aolkua: « Euskotařak indařez azpiratu dituzute. Alpeřik, bařa, gudarien ondotik, ezpa'dezute ayengana beste irakaslarien samalda bidaltzen, euskotařen

gogo ta biotzak ere gure mendean eukitzeko ». Ez zekian iztun ark, gerok, euskaldunok, aspalditik, eskoletan ofela geronen aurfka, ta batez ere gure euskeraren aurfka, genbiltzala, inor lekoretik bere gain ofenbesteko zakaferia aflu nairik letofikigukun baño aurfetik. Liluraturik geunden, itsu, txorabioak aflu ta soroyaturik. Gauferkoan begilanboa erauzi degu; eskola guretu ta euskeraltzeko zutik ta gerturik gaude. Euskalefiak ezin gaitzake euskaltzainok ekite ontarakoan bakaferik utzi. Guzien laguntza oftarako beafer. Geroratzerik ez du gure zauriak yasaten. Eskola-ataurean euskerari safpidea eragoztoko legozken zaitzaleak, diranak dirala, oildu ta uxatu beafer ditugu; eskolarako atea zabaldu; Augias'en okulu befiok txautu; gure euskera antxe gero saflu, ta andik, osatu ta pizkoftua bazter ta alde guzielara atera. Oftarako biotz ta kemenak uts egingo digutela ezin etsi det. Baña ofela izatekotan, ikas-tetxe edo eskola ezin eskuratzeko añaan endakatu, zabafer ta yabalak baldin ba'gintez, engoitik esan beafer dizuet; euskerarentzat ez dago osabiderik; euskerarenak egin du. Ta Efi batek bere izkuntza eutsi ta zaintzen yakin ez duanean, bere ilobi gañean arako *requiescat in pace*'ren ordezt, edes-tiak, birao dan beste esakun ori idazten du : *aalkearen aalkez usteldu bedi*.

GEORGES LACOMBE

EUSKALTZAIN BERTIAK, BERE SARERAKO EGUNEAN, 1921^{eko} EPAILA 8^{oa}

AZPARNEKO UDALETXEAN IRAKURITAKO ITZALDIA *

JAUNAK,

Zuen lagun bilhaka nadin nahi izan duzuelarik, handizki goretsi nauzue : hartakotz, Euskaltzaindi huntan sartzean, ene lehen hitzak eskerrezkoak izan behar dire; eta ez nezake hide hobeagorik hatzeman zuenganako nere ikustatearen agertarazteko, gogoan hartzea baizik ene ahal eta bihotz guziaz zuen laneri jarraikiko natzayotela.

Ez naiz, alabainan, osoki hein alaian, ezin ikertuz hemengo alki batean Pierre Broussain, nere adiskide maite eta aspaldikoa, guziek deithoratzen duzuenena. Hogoï urte huntan ezagutzen nuen : eskuarak elkarganatu gintuen haimbertzetaraino, non belhi eta orotan, gure eskutitze-tan, gure solasetan, eskuaraz, Eskual-herriaz eta heien non-nahitikako itzul-inguruetaz asetzen baiginen.

Halarikan, bere gaztaroko ikastegietarik ilkitzean, etzuen iduri Broussain-ek behingotz eskualari ta eskualzaletuko zela : Parisera joanik osakintzari lotu zitzayoen eta jakintza horren jakintsunen artean izendatua izan zen, anurinkeri deithu eritasunaz (frantsesez alcoolisme) idaztiño bat egin eta. Bainan, sendalarigeietikan noizean behin jadanik eskuara begistatzen zuen, eta Parisetik « Eskualduna » berriketariari eskuarazko ohar batzu igortzen ziotzan, Ithurri-ren izkinde sarigarriari zarreizkonak. Mila zortzi ehun eta lauetan hogoï ta hamalauan gare,

* Itzaldi onetarako 1 izkiak elaztegiari aitua ziralako, 1-en ordeztu jarri degu. † Azketsi, otoi, irakurleak!

eta apur baten buruan zuen geroko lankidea hunat herri-
taldu zen, osakintza guti erabiliz, eskuarari aldiz herio-
tzeraino indartsuki emana.

Berak erranen dautzue, nik baino hobeki, buruan zer
zaukan bere sorterrirat itzuli zeneko : huna zer idazten
zautan egun batez :

« Hogoi urletan eskuara guti banakien, sei edo zazpi
« urte arteko haurrek ikasten duten pochi hura ikasirik
« eta gero eskolan hoinbertze urte egonik eskuaraz batere
« mintzatu gabe. Ene amaren belhaunetan ikasiriko min-
« tzaia haimbertze nuen arrostua nun ahalge bainintzen
« eskuaraz aritzeko. Orduan buruan ezarri nuen eskuara
« behar nuela ikasi eta emeki hartan trebatu niz, ez or-
« dean frantsesean bezembat. Hasteko liburu eskuarak
« irakurtu nituen, atxeman ahalak oro, eta gero eskual-
« zale arotzek eskuararen gainetik izkiriatu dituzten
« liburuak eskuratu nituen, salbu anglesez eta alemanez
« eginak direnak, ez baititut ezagutzen zorigaitzez bi
« mintzaire horiek.. Dena den, Bonaparte, Van Eys, Vin-
« son, Dodgson, Azkue, Inchauspe, Duvoisin, Chaho,
« Larramendi, Champion eta bertzeen liburuen irakur-
« tzeak irakasi daut zoin ederra den gure mintzaire za-
« harra, eta hola piztu zaut harentzat dudan amodio
« bizia. Gogoak eta eskolak emaiten dautaten zioaz bes-
« talde, bertze bat badut eskuararen maitatzeko, hau da
« Eskualherriko gauza guzientzat dudan maitatze beroa,
« irrintzinatik hasirik eta pilotaraino, ezen badirudit ene
« aspaldiko arbaso guzien mintzoak bat egiten dutela ene
« bihotzean, harrabots handi batekin oihu eginez eta
« erranez : Eskualduna hiz, gu hire egile guziak Eskual-
« dunak ginen, Eskualduntasuna maitatu behar duk!!
« Bai, segurki, ene arbaso maiteak, zien manuari jarrai-
« kiren natzayo... »

Hitz eder horien ondotik zer derraket? Ordukotz Haz-

parnen finkatua, Broussain-ek bethi ta gehiago bere baitan eskuararentzako zaukan kharra kitzikatuz zoalarik, oiuhu egin ahal zezaken egiazki : « Eskualduna naiz, eta Eskualtasun denari ohardun nagoko. » Eta eskuarazko lanetan maitenenak zauzkan bi gauza ziren : lehenik entzuten zituen hitz eta hitzaldi gehienen biltzea, eta bigarrenik, erdarazko elhe zombaiten eskuaratzea. — Arlean, ezkondu zen, bere herriko egikizunak artatzen zituen, eta laster auzaphezturik egon zen herri huntako nagusi hamabortz urthez. Eta bere herritarrak maithatuz, bere alaba oneri eskuara irakatsiz, zombat bere arbasoen lur-rari atxikia zagon erakusten zuen.

Ene aintzinekoari bihotz-agur hori bihurtu ondoan, gure jaun buruzagiaren opa bethetzera noa. Badakielarik nola atzoko eta egungo Eskualari handienei beha nagoten, galde egin daut ene sarpide-itzaldi huntan hileetarik van-Eys'ekin maiteena daukadana aipha dezadan laburzki, erran nahi dut Luis-Luziano Bonaparte. Nehork ez du hunek baino gehiago egin gure mintzaire zahar-zaharrari ospe eta hedaduraren alde, nehork ez du, Eskualdun ez direnetan, hainbertze urrikirik izan, Eskualherrian aita eta ama Eskualdunenganik sorthua ez izaitea.

Zorigaitz handi horren gutitzeko bigarren emaztetzat hartu zuen Bonapartek Eskualdun garbi bat, eta hola haren seme bakharra Londres'en bizi dena erdi-Eskualduna da¹.

Idazti tarro bat bederen behar liteke Bonaparte-ren bizi ta lan guzien ongi ezagutarazteko. Dohakaitzez, arte pixka baten barnean, gauza handi hura ezindut burura : egokiena beraz derragun bakharrik. Badakizue Bonaparte, agintariaren illoba, mila zortzi chun eta hamahiruan

1. Hori erran ondoan yakin dut Bonaparte-ren semea hil izan dela duela zenbait urte.

sorthu zela. Gure Broussain gero bezala, etzen eskuarala xuxen joan. Hastean, frantsesez « chimie » deithu jakintza ikasirik, hiruzpalau gutunfo argitarazi zituen, baina, diotenaz, hogoi eta hamartsugarren urthean irakurtu zuen Aita Larramendi-ren hitzategia, eta geroztik Europako mintzaire biziak oro jakin-nahia zagon.

Ez du nihoiz ere erran zerengatik mintzaire horiek eta ez bertzeak zituen maitenak, baina, dena den, hasteko erran-nagusi hainitz Eskritura saindutik atheraiak mintzaire meta handi batetara itzul-arazi zituen. Berak noizetik noiz mintzaire hetaz idazten zuen eta urthe oroz moldiztegiatarik jalgitzen ziren liburufo batzu, haren manuz eta haren diruz argitarat emanak. Bizkitartean, printze jakintsu horrek, izkera guzien artetik eskuarari bereziki onzeritzan : askotan erran du eskuara izkera ororen lehena, buruzagia eta ederrena iduri zitzayoela, haren aditza ezinago harrigarria zela. Antonio Abbadi'ri Londres'etik idazten zion : « Egia bat ezaguna da, Europako aditz orotarik Eskualdunena dela hainitzez aberatsena, metatsuena, bai eta ere jakinkiena. » Eta bertze egun batez : « Berriz diot : aditz garbia, erran nahi baita es-
« kual-aditza, aditz egiazkoa da, *in principio erat verbum*
« delakoaren Berboa, eta hori bayetzen dudanian Jainko-
« gabekoen irainak, eskarnioak, deus-gutikotzat daduz-
« kat. »

Eskuararen ixilpe gordeenetan sartzeko, zer egin zuen Bonapartek? Laguntza baitezpadako gehienak hartu.

Lebenbizikorik, eskuarazko idazti ta guthun hatzema-nak oro bereganatu, etxe guzien zokoak arakatu, guthun-tegi handi nola tipiak ikertu, hainbertzetaraino non izan diren, diren, eta izanen diren Eskual-idaztegi ugariene-tarik bat bildu zuen.

Bigarrenekorik, Eskual-herriko Eskualari eta Eskual-zaleak oro ezagutu nahi izan zituen, hala-nola Duvoisin

eta Goyhetché Laphurtarrak, Salaberry eta Cazenave Baxe-Nabartarrak, Inchauspe eta Archu Xuberotarrak, Uriarte eta Eusebio Azkue Bizkaiko semeak, Azpiazu eta Otaegui Gipuzkoatarrak, Etchenique eta Lizarraga Napartarrak, eta bertze asko. Jaun horietarik bakhotxari bere lan berezia eman zion, eta bakhotxari galdegin bere indar, asmo eta jakiteaz lagunt zezan.

Hirurgarrenekorik, berak nahi izan zuen Eskual-herria ikusi, Eskualdunen artean eskuara ikhasi, eta bortzetan, mila zortzi ehun berrogei eta hamaseietik, mila zortzi ehun hiruetanhogoi eta bederatziraino Eskualdundu zen eta herritz herri bazabilan. Naki zukeen, bederen aldi bat, Eskual-herria berriz ingurutu, bainan Frantzia errepublikanatuz geroztikan ezin ahal zuen.

Dakusagun orai laster, berrogoita bortz urthe eskuarari lothua egonik, zer zor diogun, eskual-jakintzari datxikola, Bonaparte-ri. Bere biziaren gogo urena, garaiena, izan da, zazpi Eskual-herrietako eskuaren kidekatzea. Haren arabera, Bilbo-tik Biarnora eta Naparroako mugaradinoko eskualkiak berrogoi eta hamar dire bederen; eta berrogoi eta hamar eskualki nimenio horiek bereziak izan nikan ere, batzuek elgar dirudite, halanola hogoi eta bortzetara baitoazin. Badarra azkenean, hogoi eta bortz Eskualki txiki horiek berriz zortzi handitan laburtzen direla, eta zortziak hiruetara gutitzen.

Hitz batez, gure Printzeak derragu lehenbizikorik Bizkaiko eta auzoko herri zonbaiten eskuara dugula; bigarrenekorik Gipuzkoatarra, Laphurtarra eta Naparroako zati batena, hirugarrenekorik Baxe-Nabarreko eta Xuberokoa; baieta ere lehen aldikotz kidekatze hortaz eza gutzen gintuen Erronkariko, Zaraitzuko, Aezkoako eta herri gorde batzuen eskuara ere. Eta bi mapa margodun haunditan dakusagu Bonapartek eskualkietako harat-hunatak norainokoak zauzkan.

Anitz orrialdetan, bereziki *Le Verbe basque* deritzayon idazti ugarian, metaka bere eskual-gogoak zabaldu ditu. Bizkitartean, ez du eman ahal izan, seigarren aldiko gure herrirat ezin joanez, nahi izan ginukeen bezanbat, eta halarik, den bezala, haren lana berri-berritatzat daukagu; eta errex da hunen erakustea. Bonaparte'ri esker, lehen aldikotz eskuararen otsak, abokoak, mihikoak, zintzurrekoak eta bertzeak agerian erakutsi zaizkigu, eta bere beharritz aditu ditu berak ots horiek oro. Bertzalde, Bonaparten aintzinekoek aditzaren mota erabilienak baizen zituzten aiphatu, Bonapartek aldiz urrunekoetarik frango. Eta azkenian, biltzen ari diren eskualki batzutan egin lerro batzu hari ere zor diotzagu.

Horiek hala, jaunak. ez gaitezen lotsa goraki aithortzea, guk guziek, eskuarari laztanki atxikiak garenek, eta bethi, barnago bilhatuz, eskuararen erroetaz emeki-emeki hurbildu nahiak garenek, lehenik behar dugula burutik-buru, hitzez-hitz, irakurtu gure lehengokoek utzi lan guziak, eta heyen artean Bonaparterenak baliosenatarik dire. Behialako Eskualarictan badire zenbait — alfer da heyen aiphatzia — gutixko balio dutenak. Bonaparte-ri dohakonaz, erraiten ahal dugu biziko dela betiraundean, eta Eskualdun ez izanagatik Eskualdunek behar dutela gizon jakintsu hura Eskualdun garbi eta egiazko, zinezko bat bezala agurtu. Hala gure Eskualduntasuna hobeki ulertuko dugu, eta indar gehiago dukegu gure lanerako. Bizi balitz, erran zezaken Bonapartek ere Euskaltzaindia'k bezala : « Ekiñ eta ya'rai! »

R. M. DE AZKUE

EUSKALTZAINBURUAK HASPARENGO BATZAR AGIRIAN

GEO. LACOMBE EUSKALTZAINARI EGINDAKO ERANTZUMENA

EUSKALDUNAK :

Amasei urte igaroxe dira, Parisko *Bibliothèque nationale* deritzaion gutuntegi ugari artan gure Bonaparte andiak egin ta eraginiko esku-idazki (izkribu) andana baten atzak (erakutsiak) ediren nituela ta berak irakurtzera berealaxe Londresa yoa nintzala. Paper aiek irakufiz oar-moañak artzeko ustez goiz ta añatsalde agertzen nintzan Luis Luziano zenaren alargunarenean. Ilabeteren bat ala eman ta gure Aldundiai (Diputazioneai) irakurgai guzi aiek erosarazi nizkienean, alargunari eskeintza auxe egin nion : Andrea, astiuneren batez nere indañez ginoan (heinean) euskaldunai zure senaia nor izan degun liburuxkoren batean erakutsiko diet.

Gizonaren eskeintza ta egintzak bere oinen uratsak bezelakoak izan bear dute : alkafen bestenakoak, batzuk besteak bezen luzeak. Eskuiko oina zeñen bat auferatu bada (zeñena zuen izena orain eun bat urteko euskaldun askoren neguñiak, izariak) eskuiko oina zeñen bat auferatu bada, zeñen bat auferatu bear du ezkefekoak ere. Londresen egin nuen eskeintza ark zeñenak ugari zituen eta geroztik bildufak yota bizi izan naiz nere egintza askozaz (aunitzez) laburagoa izango otedenez. Orain, euskaltzain beñi onen itzaldia belafiratu dedanez geroz, yoana det nere bildufa. Eskuiko uratsa (Londresko eskeintza hura) luzea bazen, ezkefekoa (Parisko egintza) ain luzea izan daiteke. Urats batzuk, geienak, oin utsez egiten dira ;

besteak, batez ere ibili dabilena anka-bakara bada, oin-ordekoz ornitzen ditu gizonak : trapalez, makuluz, gorputza makila batek irozotzen diolarik. ¿Non oteda nere oin-ordeko ori?

Gure Pierre Broussain maite maitagarria Jaunak bera-rengana erautzi zigunean ta bere utsunea betetzeko Lacombe yaun oni ots egieran, beronek egun onetarako itzaldigailzat zer ar zezakean galde egin zidan. Nik, beronek nai zukeana artzeko eskubide osoa zuela, erantzun nion; bainan, nere aburua yakin nai bazuen, erakutsiko niola : *Bonaparte euskerarentzat zer izan den* : au zela, esan nion, nere ustez euskaldunak gogozen ta gozaroen entzungo ziotena.

Gizonak : nerabegarotik, mutiko nintzanelik, egia-ri gure mendiai bezelakoxe zaletasuna diot; eta sinets ezadazute : euskaltzain beñiari nere eritzi au eman nion ordu orfetan, enintzan Londresko eskeintza artaz oroitzen. Bat ere enekiala, nere agindua betetzeko bear nuena ordu artantxe agertu zitzaidan. Euskaltzain beñi ta euskalari zâr zaitugun orék nik baino efazago ta osokiago burutu âl izango dezu Euskaleñiak Bonaparteri zor dion lan au. Parisen bertan, zeroñen eskuera dituzu guk emen ezti-lugun gairik geienak eta egokienak. Ekin beraz arloari.

Bonapartez aurretik euskereaz ganorazko (funtsezko) lañ guti egin zela diozu = egia da = ta geroztik norbaitzuk gogoz ari dñrala eñiaren yakintza ikasi ta biltzen. Izan ere orfela izan bear zuen. Constantino andiak, bateatu ta zortzi egunen buruan, yauregitik irten ta uri-ondoko mendi-egal batean, buruntzia (koroia) erauntzita, aitzur ta añaitzuréz luña ateratuz amabi zarekada, amabi apostoluen izenean, bere sorbaldetan eraman zituen, Vaticano-ko Eliza zâra eregiten asi ziranean. Ikuskizun eder au begietaratu zuten-argin ta zurginak gaineko egunetan poz andiz lotu izango zitzaizkion beren lanari. Napoleon agintariak

bere anai ta ilobentzat eřegego zenbait sortu zituen (Espainian, Westfalian, Napolesen, Holandan) eta Parisko kale (kafika) zabal batean yauregi edefik aski. Gure Luis Lucianok bein ere etzuen izan eřegekumekara bizi izateko minik. Bere alargunari entzun nionez, urtean bein agertzen zan lengusu agintariaren inguruan, Irugafen Napoleonen gortean, eta orduan ere gogoaz bestera. Lana izan zan bere gozamenik eztitsuen. ¿Aritzekoa alda eřege odolik eztegunok, hura gure mintzoari ain minki atxikia ikusita, gu lan oni zinez ta minez lotuak bizi izatea?

Bonaparte, lanzale izanez, etzan bere lefotik yetxi, lanbeafak, koroedun ta koroegabeko, zeinnai artzen du-ta. Gu, lanzale izanez, aren lefora, eřege seme-lefora ezpada, ongile-lefora beintzat, aisa iritsi genezazke. Gizona dan gizonak bazkalmaiean baino lan-maiean gozaroago bere burua arkitu bear du. Ibilkoiak dirade berenez Egileak sortaraziriko izaki guziak : ibilkoiak, izar eder diztira-tsuak; ibilkoia, eguzki bizi-emailea; ibilkoia, andere berizale bat bezalatsu olera ta onera dabilen, ereslarien adiskide ilargia; eta izakirik tikienak, sogailuxkoz (microscopioaren bidez) aztertzen ta ikertzen ditugun kazkartxoena ere, batera ta bestera ibili ezpadabiltza, bein ere eztira ordea geldirik egoten; beren apurkinak (molekulak) ziri-miri beti igitzen dira. Eta gizona, *Rex creationis* deitzen dutena ¿geldi, astiuts, nagi? Ementxe ain zuzen ere, Hasparango uri eder onetantxe, ikasi nuen' lana maite eztuan gizonari emengo zârek eman oi zioten deitura : *alferá* izentzat, goitizentzat *khorotza* : *alfer khorotza*.

Bizkaiko uri buruan, gure etxeko maipuru-gainean degun euskalari andiari = Bonaparteri = yafaikiz, euskaltzain guziok zein geiagoka lanari lotu bear gatzazkio. Lanak bizkortasuna emango dio gure izkera zâr oni : lanen lanak. Euskaltzain guziok diot lan egin bear degula : iloro biltzen geranoz-gainera urgazle ta deduzkoak (oho-

rezkoak) ere bai. Lan au gaitza, zaila, neketsua ta etorkizun gutikoa dala esanta, gerta diteke bat edo bestek izuturik atzera egitea, gibeleratzea. Eráza ta bertan béra lantzeko arloa balitz, gerok gizalana nonbait bilatuta, gure afebai utziko genieke eskuartean darabilgun eginen au.

¿Nondik datorkio euskerari duen zailtasuna? Izkeren artean ikas-gogofena dalako? Ez, badira gogofagoak. ¿Erderartean ertsia, ats-ufia, zamatua bizi dalako? So egin Finlandiara, Bohemiara, Irlandara. Aiek Suecia ta Rusia ta Alemania ta Ingleterengandik ertsiago, sapuztuago ta makuñago bizi izan dira, bai bizkoñago ta erutsuago ere. Nere ustez banatua izatea du euskerak bere antzu- ta aultasunaren iturri ugariena. Zuberon era bat, Bizkaian beste bat; erdi-inguruko Lapurdik, Gipuzkoak eta Napafoak ere, ain banatuak ezañen, beren euskalkiak dituzte. Eremu txikia da Euskaléria onenbeste mintzoera gotorki ta indartsu hizirik irozotzeko. Izkerak, landareak bezela, luñean bizi balira; une batean porñuak, arontzago tipulak, beste txantel batean azak, auzoko alofetan garia, artoa, oloa ta garagara bezela, Zuberoko belaietan *hantzéko mintzaidetá* liteke egokiena, Lapurdin Lapurdikoa ta onela beste eskualde orotan ere. Ele ta itzen bizitokia, luña balitz, gure egikizuna laborariena bezen ezñitsua liguke; eta euskaltzainak Virgilioren artzainak bezela txirula ta txilibitua yotzen eman lezazkete alai ta gozaro, goiz ta aráts, ordurik geienak.

Euskera zñrak, birgaztetuko bada, nai ta ezkoa du banatasunetik batasunera etortzea. ¿Nola? Bizkaian, Gipuzkoan ta Napafoan izan ditugun batzar agirietan eñiari bere eritzia (aburua) eskañu diogu. Orainarte batu ditugunak bi bide auetara yotzen dute : *evolution* ta *revolution*. (Euskeraz eztakit argiro agertu netzazkean bizibide auen izenak : bilbatuz ta itzularaziz). *Evolution* : bakoitzak bere

euskalkiari bizia emanez; *revolution* : euskalki bakar bat *literariotzat* artuz. Azter ditzagun bein banan.

Frantzian bizi nintzalarik, eztakit zein paperetan irakufi nuen gezur « *mensonge* » esan-beaŕean *canard* erabiltzea nondik datoŕen. Zelai idor elkor batean âtetalde a omen-zegoen gosez, *krok* batak eta *krok* besteak zer-yan etzutela. Egazti aietako batek bere urdail ustua betetzeko grauskada bat eman zion uŕen zuenari ta ezur ta mamin iretsi zuen. Aiek ala ikusita, beste guziak alkar yaten asi ziran. Lumaz inauria gelditu zan zelaia; egaztirik bi baizik ez, gizen-gizen biak. Aiek ere mokokaldi gogofa eginta gero, batak bestea baŕenean sartuz, taldeko lagun guzien aragiak urdail bakar batean kokatu omenziran. Nik irakufi nuen -paperak etzuen aipatu âtetalde aren inguruan otso ta aizeri goseak amikaturik zelatean (baŕandan) otezan. Izan balitz, etzan âterik bat ere bizirik geldituko; egazti-mordo osoa uŕen zan oianera, puskatua ta orzkatua otso-aizerien sabelean yoango zan. Atetalde hura bezelakoa gure euskalkitaldea degu; eta jai! beron eskortan otsoa ta aizeria bizi dira. Indian ta Grezian ta Italian ta Espainian ta Ingleteran ta Frantzian ta Alemanian eta izkelkitaldea izan dan Efi andi guzietan bezela, gure artean ere *evolution* = alkar irestea = bear bada, bildur naiz, saŕakioa eŕaietaragino sartua det, alkar yan ta bat gelditu baino lenago, ezotedituzten otsoak eta aizeriak = Espainiako ta Frantziako izkerak = gure euskalkitxo guzi auek iretsiko.

Beste batzuk uste dute euskera, orain banatua, gero batua izan dadin, *Revolution* bear dala, bat artu bear degula, naiz dan bezela, naiz besten aberastasunez ornitua, betegindua. Zein izango degu euskalki oberetsi ori? Eztagokit neri galde oni erantzumena ematea. Zerbait, oŕegatik, azaltzea zilegi izan bekit. Bizkaiko euskalkiak a) beste edozeinek baino ezpain geiagotan ots egiten du, b) gure

gizaldi onetan beintzat beste edozein baino landuago izan da, z) bizigailutzat bear dan eskuartea bere Aldundiaren-gandik (*Dipulazione*arengandik) ugari artzen du ta ofela Institutoan (*Liceo*an) euskerazko irakasguak bi ditu, bat maisutegian (*École Normale*an) ta nexkamutiñentzako eskolak eun sortzen ari dira.; d) edertasunean badira euskalki batzuk zerbaitetan osoago diruditenak, bainan beste zerbaitetan ornituago, beteginago degu angoa. Eta au onela izanafen (entzun au ongi, euskaldun anai maiteak) Bizkaian, geienak ez noski, bainan askok gure euskalkia ulzi ta beste bat, erdi-inguruko bat, euskaldun geienentzat ulertefazago (aditzen aisago) den bat autatuko genuke. Edozein euskaldunek zati bat baino osoa maiteago izan bear du. Au gora-bêra guziok « nik nerea, nik nerea, nik nerea » -ka astekoak bagera, otsoak eta aizeriak guziok ezereztu-orduko, sendoen bizi dan euskalkia ar bezate etorkizuneko euskaldun orok berentzat.

Agur, aspaldiko adiskide zaitudan Lacombe yauna. Ogei ta iru urte da lenengoz alkar ezagutu genuela. Ufuan, Abbadie-ren euskalyaiak izan ziran batez ni ere deitu nindutelarik, ikusi nituen gauzetatik bitxo ditut soil-soilik nere oroimenean. *Omnes feriunt, ultima necat* irakufi nuen Elizako orenean (erloyuan); eta mai luze batean bospasei euskalari (Broussain gaixoa ta ni ukalondoz ukalondo) bazkaltzen ari ginala, bi euskalzale gazte, iletsu ta bizargabeak biak, xoko batean nekuskien, mai txiki baten inguruan eseriak eta begipeko efeki ta barazkiai bezen usu ta tinko guri so egiten zigutela. Bi aietatik bata zerori zinan. Geroztik burua soildu ta artaburu lur onekoai bezela aurpegia bizaiez bete zaitzu. Ordutikoa edo lenxeagotikoa dezun euskalzaletasun sustraitsu ofezaz Parisko izkelari argitsu ta omentsuenai urte askotan beren irakaspenak entzun dizkiezu. Poz-pozik irakufi ditut noizean beinka or ta emengo aldirokoetan egin dituzun lantxo

zeatzak eta atsegin andiz ikusi zaitugu Benapafoako troka artan lau-bost garaitan itz ta esakera, esakune ta ipuin (ixtorio) biltzen. Betorkigu argitara len bai len ta ordu onean Aldudeko euskera. Eskeřak zor dizkizut (eta euskalzale guzi auen aŕean nere zoř au garbitu nai del) eskeřak nik Londresen egindako eskeintza hura zuk Parisen egin gogo dezulako.

Eskeřak, Haspařengo auzapez yauna, zuri ere Euskaltzaindiari egin diozun ařera gozo onen alderako. Befiz ere zeroři ta zure arduraperako iri maitagaři oni esker biguñ bařenetikoak erakutsiko genizkizute, Euskaleři guzian ots andikoa izan zen zuen eřitar Pierre Broussain sortu zen etxean, Bařandegian, nor zan erakutsiz, oroitaři bat ezař bazenezate. Gizon ona, osoki ona; elizkoi ta eřikoi gartsua, senar ta guraso biotz andikoa, lander ta gabėkiko eřukiořa ta ongilea, euskalzaletasunean gutxi bezelakoa, euskalari argia, euskaltzain zintzo ta ordutsua, iri onetako auzapez lanari ongi ta luzaro yařia, inguru onen āldun (*conseiller general*) Paben izana : auxe izan dezute ta izan degu nere adiskide maite kutun Broussain Salagoity. Berak Yainko maitearengandik bear degun goiargia ardietsi bekigu, emen asibeři utzi zituen lan auek azken on batera eraman āl ditzagun.

Bilbon, 6-III-1921.

EUSKERA

BENABARE LAPURDI TA ZUBEBO'KO IKASTOLETAN

Gure irakufle batzuk askotan galde egin digute ea egia izango ote zan Prantzi'ko Ikaskuntz-Artezkariak (Ministre de l'Instruction publique) Euskaleřiko maisueri euskeraz

irakur ta idazten umeri erakatsi ziezaten agindu ziela.

Argipide oferi erantzuteko, ementxe « Bulletin officiel de l'Instruction primaire » deitua dan agerkariak bere 1913 g. urteko garilaren zenbakian zekařena yařı nai degu.

Ořa zer dion :

**Extrait du Bulletin Officiel de l'Instruction primaire
du Département des Basses-Pyrénées.**

(Supplément au mois de juillet 1913. — N° 7 bis).

L'enseignement dans les écoles rurales du pays basque ne peut avoir les mêmes caractères que partout ailleurs à cause de la difficulté de la langue et de l'irrégularité de la fréquentation, mauvaise à certaines époques de l'année.

De toute évidence, l'effort des maîtres doit porter en premier lieu sur l'enseignement pratique de la langue française usuelle. Voilà pourquoi nous avons fait de l'enseignement du français à tous les cours, l'enseignement central en quelque sorte, comme le voulait Pécaut.

Nous vous demandons, en outre, suivant encore la pensée de Pécaut, qu'il soit laissé aux maîtres qui voudront user de ce système, la faculté de se livrer en classe à des exercices de traduction de basque en français et inversement.

Ce procédé peut donner de bons résultats, grâce à l'effort d'attention et de recherche qu'il exige, et il peut également constituer un excellent mode d'initiation intellectuelle, car il permet de saisir sur le vif les différences de construction entre le basque et le français, et de familiariser, dès leur plus jeune âge, les enfants avec le génie de la langue française.